

EUSKAL GRAMATIKA

1. Izen sintagma
 1. Izen
 2. Izenordaina
 3. Determinatzailea
 4. Adjektiboa
 5. laburbiludz
2. Aditz sintagma
 1. Adberbioa
 2. Aditza
 3. Aditz jokoa
3. Euskal deklinabidea
 1. Deklinazioa zer da ?
 2. Zer da deklinatzen ?
 3. Euskal deklinabide kasuak
 4. Hitzak bokalez edo kontsonantez bururatzen direnean
 5. Beste arau batzuk
4. Perpausa
 1. Zer da perpausa eta nola egina da ?
 2. Perpaus bakunak
 3. Perpaus elkartuak
 4. Perpaus jokatuak eta perpaus ez-jokatuak
 5. Baiezko eta ezezko perpausak
5. Ortotipografia
 1. Euskal alfabetoa
 2. Ahoskera
 3. "a" organikoa
 4. Zenbakiak, tenorea eta data
 5. Laburdurak
6. Gehigarriak
 1. Izenordainak deklinaturik
 2. Haren / Bere
 3. Erakusleak deklinaturik
 4. Hitz berezi batzuen sailkapena
 5. Hiru eta lau zenbakien deklinabideak
 6. Euskal deklinabideak
 7. Euskal aditz laguntzailearen taula osoa
 8. Aditz alokutiboa
 9. Testu antolatzaileak
 10. Munduko geografiako zenbait izen
7. Bibliografia

2008ko martxoaren 10a

<http://www.ikas.org>



1. ATALA :

IZEN SINTAGMA

1/ Izena

- A: Definizioa
- B: Izen arrunten sailkapena
- C: “a” organikoa
- D: Izenaren numeroa

2/ Izenordaina

- A: Izenordaina zer da ?
- B: Izenordainen sailkapena

3/ Determinatzaileak

- A: Mugatzaileak
- B: Zenbatzaileak
- C: Determinatzaile zehaztugabeak

4/ Adjektiboak

- A: Izenlaguna
- B: Izenondoa

5/ Laburbilduz

Laburdurak :

Aditza = ad.

Adizlaguna = adlag.

Aditzondoa = adond.

Aditz sintagma = AS

Determinatzailea = det.


Izena = iz.

Izenlaguna = izlag.


Izenondoa = izond.

Izen sintagma = IS

Perpaua = P



1 - Izena



A / Izena

Jendeen, animalien eta gauzen adierazteko hitzak erabiltzen dira.
Hitz horiek **izenak** dira.

"Domingo Gorringo pirata da. Oihal beltz batek estaltzen dio begia eta zurezko zango bat dauka."

"Domingo Gorringo" in *Irakurgaiak 2. zikloa*. IKAS euskal pedagogia zerbitzua . 49. or.

"Domingo Gorringo", "pirata", "oihal", "begia" etab. **izenak** dira.

Izenetan bereizten dira **izen arruntak** eta **izen bereziak**.

"Pirata", "oihal" **izen arruntak** dira.

Izen berezia aldiz jende, toki edo animalia berezi baten aipatzeko erabiltzen da.

Maiuskula edo **letra larri** batekin hasten da.

(Adib. : Domingo Gorringo, Hendaia, Pintto ...)

B / Izen arrunten sailkapena

B.1 : Izen arruntaren forma desberdinak

- Izen bakuna :

IZENA

Izen bakuna elementu bakar batez osatua da.

Adib. : bertso, jabe, diru

- Izen eratorria :

IZENA

+

ATZIZKIA

Izen eratorria hiztegian aurkitzen den izen batekin egina da. Atzizki bat lotua zaio izen horri. Baina atzizki hura ez da bakarrik erabiltzen ahal.

Adib. : bertsolari, (izena : bertso + atzizkia : -(l)ari)

Beste adibide batzuk : jabego, dirutza...

- Izen elkartua :

IZENA

+

HITZA (izen, adjektibo...)

Berez autonomoak diren **bi hitzez** konposatua da (biek badute erranahi osoa).

Adib. : bizileku, larretxori, udaberri, bertso-afari, diru-bilketa, ardi gasna, natur zientziak...

B. 2 : Izen zenbakarriak eta izen zenbakaitzak

Izen zenbakarriak	Izen zenbakaitzak
Izen batzuk zenbatzaile batekin agertzen ahal dira. Izen horiek izen zenbakarriak deitzen dira.	Izen batzuk ez dira zenbatzen ahal. Izen zenbakaitzak dira.
<i>Adib. : bost sagar, hamar urte, liburu bat...</i>	<i>Adib. : ur, haize, ozpin ... Ezin da erran : zazpi ur*, bi haize*, ehun irin*...</i>
	Hauen artean batzuk neurgarriak dira (ur, irin, ...) beste batzuk aldiz ez, neurgaitzak deitzen dira (maitasun, su, haize, ...).
	<i>Adib. : Pinta bat ur, maitasun handi,...</i>

C / "-a" organikoa (ikus zerrenda eranskinetan)

Izen batzuk, berez, "-a" batekin bururatzen dira.

"-a" organikoa deitzen da.

Ez da artikuluairekin nahasi behar.

Adib. : alboka, anaia, arbola, aza, azoka, axola, baba, bidaia, bista, burbuila, dantza, denbora, denda, erromeria, ezkila, gela, habia, horma, ideia, koilara, kopeta, laranja, neska, obra, poltsa, sega, txanpa, uda, xingola, zola, etab. ...

Ezin da * *anai bat* erran. *Anaia bat* erraten da.

"a" organikoa duten hitzak deklinatzen direlarik, orduan zer gertatzen da ?

Fonetika arauak hauek dira :

a + a = a (arbola + aren = arbolaren)

Adib. : "Arbolaren abar bat hautsi da."

a + e = e (pertsona + en = pertsonen)

Adib. : "Pertsonen zerrenda bildu dut."

- Mugagabea erabiltzen da :

- ZER, ZEIN eta ZENBAT galdetzaileekin :
Adib. : “Zein bideo ekarri duzu ?”, “Zenbat haur ikusi duzu ?”, “Zer tenoretan etorriko zara ?”
- zenbatzaile zehaztugabeekin : (ikus 3. – B taula)
Adib. : “ Anitz ur edan dut.”
- zenbatuak direnak zein diren ez dakigunean :
*Adib. : “Hamar ikaslek bidaia egin dute.” **mugagabea** (zein ikasle diren ez dakigu)*
*Oharra : “Hamar ikasleek bidaia egin dute.” **mugatua** (zein ikasle diren badakigu)*
- beste zenbait kasu berezitan :
*Adib. : “Eguzkitan egon da.” eta ez **“Eguzkian egon da.”**

Zuzena

2 – Izenordaina

"Gatuak dio : - **Nik** ere xoriek bezala hegaldatu nahi nuke.
- Orduan hegalk behar dituzu **guk** bezala ! - erantzun zioten xoriek."

"Pitxitxi" in *Irakurgaiak 2. zikloa* IKAS euskal pedagogia zerbitzua . 9. or.

A / Izenordaina zer da ?

Izenaren ordeaz ager daitekeen elementua **izenordaina** deitzen da : *ni, zuk, gurekin...*

*Adib. : gatuaren ordeaz **nik**, xorien ordeaz **guk***

Izenordainak ez du mugatzailerik hartzen.

Izenordainak deklinabide kasu markak hartzen ditu : *ni, nik, niretzat, nirekin...*

(ikus 1. eranskina)

B / Izenordainen sailkapena

B.1 : Pertsona izenordainak

→ **Pertsonal arruntak** : NI, HI, GU, ZU, ZUEK (nb : *hura* eta *haiek* erakusleak dira)
Izenordain hauek jendearen izendatzeko erabiltzen dira bakarrik.

Adib. : "Ni mendian ibili naiz», "Gu gara liburu honen idazleak»

Deklinabide kasuak hartzen dituzte. **Ni** izenordainaren *noren* kasua **nire** da.
Iparraldeko euskalkietan, *ene* erabiltzen da maiz, eta haren erabilera onartua da.

Adib. : "Trakasleak ene ipuina irakurri du gelan."

Ni	>>	nire / ene
Hi	>>	hire
Gu	>>	gure
Zu	>>	zure

Deklinabide kasuak – Pertsona izenordainak euskara batuan					
NOR	ni	hi	gu	zu	zuek
NORK	nik	hik	guk	zuk	zuek
NORI	niri	hiri	guri	zuri	zuei
NOREN	nire*	hire	gure	zure	zuen
NOREKIN	nirekin	hirekin	gurekin	zurekin	zuekin
NORENTZAT**	niretzat	hiretzat	guretzat	zuretzat	zuentzat
NORTAZ	nitaz	hitaz	gutaz	zutaz	zuetaz
NORENGAN ***	ni(re)gan	hi(re)gan	gu(re)gan	zu(re)gan	zuengan
NORENGANDIK	ni(re)gandik	hi(re)gandik	gu(re)gandik	zu(re)gandik	zuengandik
NORENGANA	ni(re)gana	hi(re)gana	gu(re)gana	zu(re)gana	zuengana
NORENGANANTZ Nori buruz	ni(re)ganantz	hi(re)ganantz	gu(re)ganantz	zu(re)ganantz	zuenganantz

* Iparraldean *nire*-ren ordeaz *ene* erabiltzen da eta beraz *eni*, *enekin*, *enetzat*, etab..

** Iparraldean *norendako* erabiltzen da gehien bat (eta beraz : *enetako*, *hiretako*..).

*** Iparraldean : *norengan* = *noren baitan*.

- ➔ Forma indartuak : **NIHAUR, HIHAUR, GUHAUR, ZUHAUR, ZUIHAUK**
(Heg. : ni neu, hi heu, gu geu, etab..)

Forma indartuak galdeetan erabiltzen ahal dira.

*Adib. : "Lan hau **nihaurek** egin behar dut ?"*

Bestalde, izenordain indartuak partikularen aitzinean aurkitzen ahal ditugu.

*Adib. : "**Zuhaur** bizi zara etxe honetan."*

Deklinabide kasuak – Pertsona izenordainak indartuak euskara batuan					
NOR	nihaur	hihaur	guhaur	zuhaur	zuihauk
NORK	nihaurek	hihaurek	guhaurek	zuhaurek	Zuihauek
NORI	nihuri	hihuri	guhauri	zuhauri	Zuihauri
NOREN	nihauren	hihauren	guhauren	zuhauren	zuihauen
NOREKIN	nihaurekin	hihaurekin	guhaurekin	zuhaurekin	zuihauekin
NORENTZAT	nihaurentzat	hihaurentzat	guhaurentzat	zuhaurentzat	zuihau(e)ntzat
NORTAZ	nihautaz	hihautaz	guhautaz	zuhautaz	zuihau(e)taz
NORENGAN *	nihaurengan	hihaurengan	guhaurengan	zuhaurengan	zuihau(e)ngan
NORENGANDIK	nihaurengandik	hihaurengandik	guhaurengandik	zuhaurengandik	zuihau(e)ngandik
NORENGANA	nihaurengana	hihaurengana	guhaurengana	zuhaurengana	zuihau(e)ngana
NORENGANANTZ Nori buruz	nihaurenganantz nihauri buruz	hihaurenganantz hihuri buruz	guhaurenganantz guhauri buruz	zuhaurenganantz zuhauri buruz	zuihau(e)nganantz zuihau(e)ri buruz

*Iparraldean : *norengan* = *noren baitan*

B. 2 : Izenordain zehaztugabeak

→ Galdetzaileak :

NOR (edo **ZEIN**) izenordain galdetzaileak **pertsonentzat** balio du. Galdera baten egiteko erabiltzen da.

*Adib. : **Nor** da mintzo ? Ez da **nehor** mintzo. / **Zeinek** erran du ? **Horrek** erran du.*

Pertsona ez bada, orduan **ZER** galdetzailea erabiltzen da.

*Adib. : **Zer** marrazten duzu ? Gaztelu eder bat marrazten dut.*

Kasu : Behar baino gehiagotan *zein* izenordaina erabiltzen da :

*Adib. : *"**Zein** tenoretan jaikitzen zara ?" **Okerra***

*"**Zer** tenoretan jaikitzen zara ?" **Zuzena***

→ Galdetzaileetatik eratorritako izenordain mugagabeak :

NOR	ZER	ZEIN
norbait nor edo nor edonor, nornahi inor, nehor norbera, bakoitza norbere	zerbait zer edo zer edozer, zernahi ezer, deus, zertxobait	edozein, zein-nahi ezein

Ikus gehigarrietan norbait, inor ... -en erabilera.

*Adib. : "**Norbait** ikusi dut ate giblean."*

*"Nik ez dut **nehor** ikusi."*

*"**Zernahi** kontatzen du."*

*"**Nornahi** sar daiteke etxe honetan."*

Kasu :

*Ezer, inor(nehor), eta kidekoeri **ez** ukatzailea gehituz, negatiboak bihurtzen dira.*

*Adib. : *"**Zer** eman dizu ? Deus dit eman." **Okerra***

*"**Zer** eman dizu ? Deus **ez** dit eman." **Zuzena***

"Nor** da hor ? Nehor/inor da" **Okerra***

*"**Nor** da hor ? **Ez** da nehor/inor." **Zuzena***

B. 3 : Izenordain bihurkariak eta elkarkariak

♦ B. 3.1 : Izenordain bihurkariak

Erranaldi batean, bi izen sintagma **erreferentziakideak** direlarik (hots, pertsona bera aipatzen duten bi izen sintagma ditugunean), orduan bigarren izen sintagma **izenordain bihurkaria bilakatzen da**.

“Nire, hire ... + BURUA” formula erabili behar da.

Aditza aldiz Nor/Nork motakoa da. (ikus 2. atala)

Adib. : “Kaietek bere burua ongi senditzen du.”

Ikus bere eta haren-en erabilera gehigarrietan.

♦ B. 3.2 : Izenordain elkarkariak :

Izenordain **elkarkariek** aldiz “erreziprokotasuna” adierazten dute. Bi elementu behar dira gutienez elkarkariaren osatzeko.

Adib. : “Oihana Peioren ondoan da. Peio Oihanaren ondoan da.”

Beraz, “Oihana eta Peio **elkarren** ondoan dira.”

*“Gatuak eta xakurrak **elkar** maite dute.”*

*“**Batak** **besteari** kontatu zion gertatu zena.”*

Kasu :

Anitzetan hutsak egiten dira *elkar* izenordaina erabiltzean.

(“Morfosintaxia” - Eimaren estilo liburua – 65.or)

*Adib. : ***“Elkar bazkalduko dira.”***

Okerra

*“**Elkarrekin** bazkalduko dira.”*

Zuzena


**“Laster ikusiko gara.”*

Okerra

*“Laster ikusiko **dugu** elkar.” edo “Laster elkar ikusiko dugu.”*

Zuzena

3 - Determinatzaileak



Oker :

"Egun asteazken da. Arño etxean da. Martxuka ikusi ditu Amatxiren baratze zolan. Ikusi eta dastatu ere."

Erranaldi hau oker da. Zergatik ?
Determinatzaileak falta baitira.

Zuzen :

"Egun asteazkena **a** da. Arño etxean da. Martxuka **batzuk** ikusi ditu Amatxiren baratze zolan. Ikusi eta dastatu ere."

Izen sintagman aurkitzen den izenak **determinatzailea** behar du.


*Adib. : Jende **anitz** etorri da.*

***Bi** anaia baditut.*

*Komiki **hori** erosi nahi dut.*

*Hartza **lo** da.*

"Anitz", "bi", "hori", "-a" determinatzaile dira.



A / Mugatzaileak

Mugatzaileen artean **artikuluak** eta **erakusleak** aurkitzen ditugu. Determinatzaile mugatzaile hauek singularra edo plurala adierazten dute. Mugatzaileen lekua izen sintagmaren azken muturra da.

♦ **Artikuluak** : -a, -ak

Normalean, izen arruntek eta izenondoek dute artikulua hartzen.

<i>Singularra</i>	<i>Plurala</i>
<i>Bixkotxa, arbola, lehoia, sentipena...</i>	<i>Bixkotxak, arbolak, lehoiak, sentipenak ...</i>
<i>Zango luzea, karrika iluna ...</i>	<i>Zango luzeak, karrika ilunak ...</i>

Izen bereziek eta izenordainek ez dute artikulurik hartzen.

Adib. : "Elorri joan da."

"Hi etorriko haiz goizean goiz."

- ♦ **Erakusleak** : hitzak berak dioen bezala, erakusleak zerbaiten seinaltzeko, erakusteko erabiltzen dira.

<i>Singularra</i>	<i>Plurala</i>
Absolutiboan : hau, hori, hura	Absolutiboan : hauek, horiek, haiek
"Liburu hau prestatzen dizut."	"Liburu hauek prestatzen dizkizut."
"Mutiko hori ezagutzen dut."	"Mutiko horiek ezagutzen ditut."
"Atzo ikusi jantzi hura egun erosi dut."	"Atzo ikusi jantzi haiek egun erosi ditut."
"Aste honetan joanen naiz."	"Azken aste hauetan eri zen."
"Bi haur hauek ama bera dute."	"Jantzi hauek kolore berak dituzte."
...	...

Badira ere erakusle indartuak : hauxe, horixe, huraxe...

Ber- aurritzia ere agertzen da erakusleekin : bera,...

Adib. : "Bi hitzorduak egun **berean** ditu."

Kasu :

Bera mugatzaileak identitatea adierazten du, *berdin* izenondoak aldiz berdintasuna.

Adib. : "Zure anaiak eta nireak pirripita berdina erosi dute." (bi pirripita badira)

"Zure anaiak eta nireak pirripita bera erabiltzen dute." (pirripita batetaz mintzo gira)

Bera eta *berdin* ez dira nahasi behar.

Adib. : *"Adin **berdinekoak** gara."

Okerra

"Adin **berekoak** gara."

Zuzena

(bada gehiago : erakusleetatik sortu adberbioak : hemen, hor, han, etab.)

B / Zenbatzaileak(ikus eranskina *hiru* eta *lau*en deklinabide taula)

Zenbatzaileek izena mugatzen duen **zenbatasuna** definitzen dute. Zehaztuak, zehaztugabeak edo orokorrak dira.

ZEHAZTUAK	ZEHAZTUGABEAK	OROKORRAK
Izenaren ezkerrean aurkitzen dira, "bat" eskuinean dugularik. => Kardinalak : bat, bi, hiru, lau... => Ordinalak : zenbatzaile kardinalari <i>-garren</i> gehitzen zaio : bigarren, ehungarren ... => Banatzailak : kardinalari <i>-na</i> atzizkia gehitzen zaio: bana, bina, bosna... <i>"Hiru zaldi..."</i> <i>baina "xakur bat".</i> <i>"Hogeita hamabigarren urtean..."</i> <i>"Jostailuak hamarnaka banatu ditugu."</i>	Kasu honetan ez da sekula zenbaki zehatzik adierazten : batzuk, zenbait, guti, anitz, xorta bat, pixka bat, ugari, etab. Zenbatzaile zehaztugabea izenaren ezkerrean edo eskuinean ager daiteke. <i>"Lagun batzuk etorri dira."</i> <i>«Anitz opari ukan dut."</i> <i>"Etxe franko ikusten da."</i> <i>"Euri guti egin du.»</i> <i>"Laranja zuku xorta bat edaten dut.»</i> ...	Sail honetan hiru zenbatzaile sartzen dira : "dena", "guzia" eta "oro". <i>"Dena jan dut."</i> <i>"Ikasle guziak kanpoan dira."</i> <i>"Oro har", ...</i>
	Zenbatzaile zehaztugabeekin, aditza singularrean bai eta ere pluralean joka daiteke. Bi kasuak onartuak dira. (EIMArek estilo libirua – 92.or.) <i>Adib. :</i> <i>"Zenbait animalia ikusi dut."</i> edo <i>"Zenbait animalia ikusi ditut"</i>, <i>"Lore anitz erosi dut/ditut."</i>, <i>"Jende franko bildu da/dira"</i>, ...	<i>"Oso"</i> eta <i>"guzia"</i> zenbatzaileak desberdindu behar dira batzuetan. <i>Adib. :</i> <i>"Ur osoa edan duzu."</i> EZ <i>"Ur guzia edan duzu."</i> BAI <i>"Pastiza osoa jan du"</i> BAI

Bat eta **batzuk-en deklinabideak :**

(Eranskinetan?)

Bat		Batzuk
Mugagabea	Mugatua	
Bat	Bata	Batzuk
Batek	Batak	Batzuek
Bati	Batari	Batzuei
Baten	Bataren	Batzuen (batzuengan, batzuengana, batzuengandik, batzuen baitan...)
Batentzat	Batarentzat	Batzuentzat
Batekin	Batarekin	Batzuekin
Batez	Bataz	Batzuez
Batean	Batean	Batzuetan
Bateko	Bateko	Batzuetako
Batera	Batera	Batzuetara

*Adib. : "Xarea : sare berezi **batekin** jokatzeko da trinketean".*

Kasu :

Ehunekoak aipatzean, akats batzuk frankotan agertzen dira.

("Morfosintaxia" - Eimaren estilo liburua – 85. or)

*Adib. : ***Tkasleen** %75**ak** azterketa kausitu du."*

Okerra

*"**Tkasleen** %75**ek** azterketa kausitu du."*

Zuzena

****Prezioak** %2an goiti joan dira."*

Okerra

*"**Prezioak** %2 goiti joan dira."*

Zuzena

Unitateak mugagabeak :

Adib. : "Distantziak kilometrotan" edo "Distantziak km-tan".

"Prezioak eurotan" edo "Prezioak €-tan".

Kasu :

Hiru eta **lau** zenbakiak ez dira beste zenbakiak bezala deklinatzen.

*Adib. : "Bi sagar bildu ditut eta **biak** onduak ziren."*

*"Hiru lore oparitu dituzu eta **hirurak** gorriak dira."*

*"Lau asto baditu eta **laurak** kaskagorrorak dira."*

(Hiru eta lau zenbakien deklinabideak eranskinetan, 6. or.)

Kasu :

Pisua, neurria, prezioa, tokia, modua, denbora eta horrelakoak adierazten direlarik, kasu aditzaren komunztadurari.

*Adib. : “Hiru oren iraun **du** azterketak.”*

*“Patata horiek bost kilo pisatzen **dute**.”*

*“Orain **dela** zazpi urte etorri zen.”*

(gehiago bada : zenbatzaileak eta neurriak : bi euroko aldizkaria...)

C / Determinatzaile zehaztugabeak

Zer, zein, zernahi, zeinnahi, edozein, zer, edozer eta **beste** determinatzaile zehaztugabeak dira. Izenaren ezkerrean agertzen dira.

*Adib. : “**Zein** lagunei prestatu diozu baloia ?”*

*“**Zer** tenore da ?”*


*“**Edozein** liburu hemendik atera daiteke.”*

*“**Zernahi** gauza erosi du.”*

Determinatzaile hauek ez dute mugatzailerik onartzen salbu *bestek*.

*Adib. : “Zure **beste** lagunarekin joanen naiz mendira.”*

4 - Adjektiboa



Izen sintagmaren osagaietarik batek izena laguntzen du eta nolakoa den adierazten. Osagai hori **adjektiboa** da.

"Liburu **eder** bat eskaini didate."

➤ Eder hitzak liburua nolakoa den adierazten du.

"Ene etxean, **zurezko** eskailera bat bada."

➤ Zerezkoa da eskailera ? Zurezkoa da.

A / Izenlaguna


"Gizon zahar gris bat zen zakur ttiki beltz batekin. Biak elkarrekin bizi ziren **bidexkaren azkeneko** etxean, **burdinazko** portaile herdoildu baten gibelean."

"Gizon zaharra" in *Irakurgaiak 3. zikloa* . IKAS . 114. or.

Izenlaguna izen nagusiaren **aitzinean** edo **ezkerrean** kokatzen da.

Izenlaguna (izen, adjektibo...) **-ko** edo **-en** atzizkiez osatua da : **bidexkaren**, **azkeneko**, **burdinazko**.

A.1 : Izenlaguna eta izena



Oharra : Hitz elkarketetan erlazio atzizkiak (-aren...) gordeak gelditzen dira.

Adib. : "Hizkuntz politika" (hizkuntzaren politika) ; ikasketa garaia (ikasketako garaia).

Ez da beti erres erabakitzea zein atzizki erabili behar den. Batzuetan biak erabili daitezke.

Adib. : "Euskal Herriko historia" (Euskal Herrian gertatua)
 "Euskal Herriaren historia" (Euskal Herria subjektu duen historia)

A.2 : "-ko" atzizkia (ikus EGLU – 301. or, 4.3.2)

Atzizki hau erabiltzen da lekuaren eta denboraren adierazteko.

Adib.: "Baionako karrikak". Nongo karrikak ? (karrikak Baionakoak direla adierazi nahi dugu.)
"hemengo jendea", "gaurko tren", "aspaldiko laguna", "auzoko xakurra", ...

Bestalde, zenbatzaile bat agertzen denean adina, prezio, neurria, pisuaren adierazteko, **-ko** atzizkia erabiltzen da :

Adib. : "Lau kilometro**ko** ibilaldia", "Bi urte**ko** haurra", etab.

-ta atzizkia pluralean agertzen ahal da bai eta ere mugagabeen.

Adib. : "Bi etxeet**ako** auzoak." (plurala)
*"Zein etxet**ako** haurrak dira?" (mugagabea)*

A. 3 : "-en" edutezko genitiboa (noren) (ikus EGLU – 415. or, 15.2.2)

Atzizki hau erabiltzen da jabegoaren adierazteko.

Adib. : "Aitaren autoa". Noren autoa ? Aitaren autoa dela adierazi nahi dugu.

«Bazterren koloreak", "xoxoaren mokia", "lilien usaina", etab.

Oharra : izenordainetan (ni, hi, gu .) atzizkiak -re forma hartzen du : *gure alaba, nire bazkaria...*

Kasu : Atzizki hauek gaizki erabiliak dira batzuetan. ("Morfosintaxia"- Eima – 107.or)

*Adib. :**"Futbol **partidako** lehen zatia" **Okerra**

"Futbol **partidaren** lehen zatia" **Zuzena**

B / Izenondoa

"Gizon **zahar gris** bat zen **zakur ttiki beltz** batekin. Biak elkarrekin bizi ziren bidexkaren azkeneko etxean, burdinazko **portaile herdoildu** baten gibelean."

"Gizon zaharra" in *Irakurgaiak 3. zikloa* . IKAS euskal pedagogia zerbitzua . 114. or.

B. 1 : Izena eta izenondoa

Izenondoa izenaren **eskuinean** jartzen da.

*Adib. : "etxe **xuria**", "mutiko **handia**", "liburu **eder** hau", "gizon **azkar** bat"...*

Izen batek izenondo bat baino gehiago ukan dezake. Kasu honetan informazio garrantzitsuena izenaren ondoan ezartzen ahal da. (ikus EGLU I – 248. or, (529))

*Adib. : "gizon **zahar gris** bat", "zakur **ttiki beltz** bat"*

1 2 1 2

Izenondoa hitz elkartua edo eratorria izan daiteke.

Adib. : "Gizon buruhandia", "Gaztelu beldurgarri bat"...

Izenondo batzuk, ez kualitatea, baina maila eta neurria adierazten dute : **graduatzailleak** deitzen dira eta usu izenondoaren ezkerraldean kokatzen dira

*Adib. : "Egoitza **oso** karioa", "istripu **biziki** larria"...*

Oharrak :

→ Koloreak :

Zenbait kolore izen batean oinarrituak dira : arrosa, laranja, gaztaina...

Elkarketaren bidez adierazten dira halako koloreak : *arrosa-kolore, gaztaina-kolore...*

Kolorearen adierazteko beste hitz batzuk ere erabiltzen dira :

gorri, gris, berde, hori, urdin...

Hitz hauek izenaren eskuinean jartzen dira beti : *begi urdinak, etxe xuria, etab...*

Baina kasu egin behar da hitz hauek *kolore* hitzarekin elkartzeko direnean :

Adib. : "Begi urdinak ditu" edo **Urdin koloreko begiak ditu.* *Okerra*
"Kolore urdineko begiak ditu." *Zuzena*

→ Maileguak :

Izenondo mailegatuek izenaren eskuinean jarri behar dira :

sindikak, sozial, politiko...

Bestenaz, hitz-elkarketa egin daiteke oinarrian dituzten izenekin :

sindikatu, jendarte, politika...

Kasu : akats hauek ardura agertzen baitira

Adib. : **Sozial mailan* *Okerra*

Maila sozialean *Zuzena*

B. 2 : Komunztadura

Ikusi dugu izen arruntek determinatzaile bat hartzen dutela.

Adib. : *etxea*

Izenondo bat jartzen delarik, orduan determinatzailea izenondoari lotzen zaio.

Adib. : **Etxea gorri erosi dut.* *Okerra*

"Etxe gorria erosi dut." *Zuzena*

"ardi xuria, bazkari on bat, haize bortitza, harri grisak, ile luzeak, etab."

Oharra : Izen batzuek "-a" organikoa badute. "-a" organiko hori ez da kendu behar.

Adib. : *"Ideia ona da."*

Kasu :

"Etxea gorria da". Hemen "gorria" hitza ez da izenondoa adizlaguna baizik. Beraz determinatzailea izen nagusiari lotzen zaio.

Laburbilduz...


- Erranaldi honetan zazpi **izen** badira :

« **Etxeko xakurrak mutur** fina du, **larru** gorri goxoa, **buztan** luzea, **begi** zorrotzak eta **izengoiti** irrigarri batzuk.»

- Sei **izen multzo** konda daitezke :

- | | |
|---|---------------------|
| 1. <u>etxeko</u> xakurrak | Izen nagusia |
| 2. mutur <u>fina</u> | <u>Izenlaguna</u> |
| 3. larru <u>gorri goxoa</u> | <u>Izenondoa</u> |
| 4. buztan <u>luzea</u> | Determinatzailea |
| 5. begi <u>zorrotzak</u> | |
| 6. izengoiti <u>irrigarri batzuk</u> | |

- **Izen multzo** batean aurkitzen ditugun osagaiak hauek dira :



2. ATALA :

ADITZ SINTAGMA

1/ Adberbioa

A: Adizlagunak

B: Aditzondoak

2/ Aditza

A: Aditzaren ezaugarriak

B: Aditzaren jokia

3/ Aditz jokia

A: Aditzaren aspektua


B: Aditzaren tempusa

C: Aditzaren moduak

D: Pertsona

1 – Adberbioa

Aditz sintagmaren elementu bat da **adberbioa**. Osagai honek aditza laguntzen du. Bi adberbio mota badira : **adizlagunak** eta **aditzondoak**.



« Donibane-Lohizuneko eliza-dorrea urrunera ageri zen berriz. »

“Aitor itsasoan” in *Irakurgaiak 2. zikloa* .Ikas euskal pedagogia zerbitzua . 116. or.

A / Adizlaguna

Adizlaguna **kasu-marka** edo **postposizioaren** bidez sortua da.

Atzizki bat behar du aditzari lotzeko.

Adib. : « ... eliza-dorrea urrunera ageri zen ... »

A. 1 : Leku denbora adierazten duena

Hemen kokatzen da « **-n** », « **-ra** » edo « **-tik** » atzizkiez bururatzen den adizlaguna.

Adib. : « Lurrera bota du. »

« Aita arditegian da. »

« Etxetik abiatuko gara. »

Kasu : (EIMArek estilo liburua – morfosintaxia – 118. or)

**"Idatz 0 eta 9 arteko zenbaki guziak."*

Okerra

"Idatz 0tik 9ra arteko letra guziak."

Zuzena

A. 2 : Kasu-atzizkiek sortua

Hemen kokatzen da « **-ekin** », « **-z** », « **-gatik** » edo « **-entzat** » atzizkiez bururatzen den adizlaguna.

*Adib. : "Lagun**ekin** jostatu naiz."*

"Jantzia eskuz josi du."

*"Zure solaseng**atik** joan da."*

*"Oparia haurrare**ntzat** eskaini du."*

A. 3 : Posposizioak sortua

Postposizioak zer dira ?

Perpausaren sintagmen arteko erlazio gramatikalak adierazten dituzten forma askeak dira. Ardura izenak dira.

Ororen buru erran dezakegu bi sintagmen arteko lotura egiten ahal duela izen batek.

Orduan, kasu-marka hartzen du, posposizio bilakatzeko.

(ikus EGLU - I. Liburukia – 438. or.)

Adib. : "Ekonomia gaiari buruz hitz egingen dugu".

➔ Aditzlaguna "ekonomia gaiari buruz" da.

➔ Aditzlagun hau, "buruz" posposizioaren bitartez sortu da.

B / Aditzondoak

Aditzondoa bakar bakarrik erabiltzen ahal da.

Ez du kasu-marka baten hartzeko beharrik aditzari lotzeko. Aldaezina da.

*Adib. : « ... eliza-dorrea urrunera ageri zen **berriz**. »*

Aditzondo guziek ez dituzte forma berak.

B. 1 : Aditzondoaren sailkapen formala


- Aditzondo bakunak :

Trinkoak dira hauek. Osagai bakar batez osatuak dira.

Adib. : *"Gero abisatuko dut", "Emeki ibiltzen da **beti**", ...*

- Aditzondo eratorriak :

aditzondo eratorria



Hitz batez osatuak dira. **Aditzondo-atzizkia** lotua zaio hitz horri.

Adib. : *EDER (hitza) + KI (atzizkia) = EDERKI*

Aditzondo-atzizki erabilienak hauek dira : *"-ki", "-ka", "-ro", "-to", "-ik", "-kari" eta "-la"*.

Adib. : *"Gela **ederki** apaindu duzu.", "Jauzika ari da.", "Egunero ikusten dut.", "Pozik zira.", "Urte **berrikari** elkartzen dira." ...*

- Aditzondo konposatuak :

Osagai bat baino gehiago dituzte aditzondo hauek.

Adib. : *heren + egun = herenegun*

Aditzondo konposatu batzuk galdetzaile batez ere osatuak dira.

Adib. : *"Etxe hau **noizbait** erosiko dut.", "Nonahi gordea izan daiteke." ...*

- Bestelako hitzak :

Zenbait hitz aditzondo bezala erabiltzen ahal dira.


Adib. : *"**Argi** ikusten dut."*

B. 2 : Aditzondoaren sailkapen semantikoa

Aditzondoaren sailkatzeko beste manera bat bada : eduki semantikoa kontuan hartzea.

- Denbora aditzondoak :
 NOIZ galdeari erantzuten diote.
Adib. : "Gaur kontzertura noa."
 (Hona denbora aditzondo batzuk : **noiznahi, edonoiz, sekula, nehoiz, inoiz, noizbait, atzo, gaur, gero, bihar, etzi, herenegun, berriz, berriro, beti, dagoeneko, jadanik, egundaino, orain, orduan, laster, behin, batzuetan, askotan, egunero, urtero, noizean behin, lehenbailehen, noiz edo noiz, gero eta goizago, etab. ...)**
- Leku aditzondoak :
 NON, NORA, NORAINO, NORAÑO galdeei ihardesten diete.
Adib. : "Giltzak nonbait gorde ditu."
 (Zenbait adibide : **hemen, hortik, harako, bertan, nonahi, norabait, nehon edo inon, nonbait, hurbil, urrun, han, hor, hemen, nondik, handik, etab. ...)**
- Nozio bat adierazten dutenak :
 Modua eta maila (zenbat) adierazten dute aditzondo hauek.
 Modu-aditzondoak : **nola** galdeari erantzuten da.
Adib. : "Ustekabean erori da.", "Ozenki mintza zaitezte."
 (modu bat adierazten duten beste aditzondo batzuk : **poliki, apurka, honela, korrika, alferrik, isilik, gustura, asperturik, nolanahi, nolabait, etab. ...)**
- Maila aditzondoak :
Adib. : "Etxea biziki ederra da."
 (maila adierazten duten beste aditzondo batzuk : **aski, arras, arrunt, batere, alde bat, erdi, franko, izigarri, nahiko, oso, ongi, sobera, etab. ...)**
- Jarrera/ iritzia adierazten dutenak (edo iritzi aditzondoak) :
 Hitzunak iritzi bat ematen duelarik.
Adib. : "Agian ez du euria eginen."
 (iritzia adierazten duten beste adberbio eta esaera-adberbial batzuk : **jakina, iduriz, itxuraz, naski, noski, dudarik gabe, beharbada, etab. ...)**
- Partikula adberbialak :
 Aditzari lotuz, honen zentzua pixka bat aldatzen da. Hona adibide batzuk :
 - ➔ AL : Galdeen egiteko erabiltzen da. Beharrezkoa ez bada ere, erabiltzeak beste entonazio bat ematen dio perpausari.
Adib. : "Ez al dakizu nor den ?"
 - ➔ OMEN : Aipamena egiten du. Ez dakigun zerbaiten berri emateko erabiltzen da.
Adib. : "Anitz eleberri idatzi omen du."
 - ➔ OTE : Galdea eta duda, zalantza adierazten ditu aldi berean.
Adib. : "Zer ote da animalia honen izena ?"

2 - Aditza



« *Errege bat ihizira joan zen egun batez.* »
aditz sintagma

“Erregea eta baserritarra” in *Irakurgaiak 2. zikloa* . Ikas euskal pedagogia zerbitzua . 162. or.

Erranaldi batean, ekintza, egoera edo izatea adierazten duen hitza **aditza** da.
 Erranaldi honetan aditza « joan zen » da.

*Beste adib. : « Xakurrak hezurra **jan du.**»*

Erranaldi batean **aditza**, ekintza edo egoera, bilakaera adierazten duen hitza da.
 Kronologia eta aldiari (denborari) buruzko informazioak ematen ditu.

Ekintza bat : “Xakurrak hezurra **jan du.**”

Molde bat : “Museoa handia **da.**”

A / Aditzaren ezaugarriak

Euskal gramatikan, aditzak itxura desberdinak har ditzake :

- ➔ aditz oina ;
- ➔ partizipioa ;
- ➔ aditz izena ;
- ➔ aditz jokatua : forma perifrastikoa, forma trinkoa.

A. 1 : Aditz oina

Aditz oinak ez du aspektu markarik. (ikus aspektu-marka 3-A)

Aditz oina ez da jokatua. Maiz aginduak ematean erabiltzen da.

Adib. : ikus – etor – ekar – eman – mintza – lot ...

“i” bereziaz bururatzen diren aditz oinen kasua :

Kasu zeren eta aditz oin batzuek “i” berezia baitute. “i” berezi hori ez da kendu behar.

Adib. : jaiki, jalgi ...

Aditz oin hauen ezagutzeko horra nola egin : aditz oinari “-tze” jartzean “i” egoten bada orduan erran dezakegu “i” berezia dela. Alderantziz, “-t(z)e” jartzean “i” desagertzen bada orduan ez da “i” berezia.

Adib. : jalgitze >> jalgi, “i” atxiki behar da aditz oinean.

ikaste >> ikas da aditz oina (eta ez ikasi).

A. 2 : Partizipioa

Ikusi – etorri – ekarri – eman – mintzatu – lotu ...

Forma hau duen aditza **partizipioa** deitzen da.

Partizipio anitzek “-tu” atzizkia hartzen dute : *hartu, lotu, senditu, aztertu ...*

“-tu” atzizkia “-du” bilakatuko da aditz oina “-n” edo “-l” batekin bururatzen bada : *saldu, lagundu, ahuldu ...*

Bestalde, forma zaharrak eta forma berriak bereizten ahal ditugu :

Adib. : ahantzi / ahaztu

Azkenik, partizipioari “-en” edo “-ko” atzizkia gehituz etorkizuna adierazten da.

Adib. : ikusiko, etorriko, emanen, mintzatuko, lotuko...

A. 3 : Aditz izena

Izenak berak dioen bezala, izen bilakatu den aditza da aditz-izena.


Hortako “-TE” edo “-TZE” atzizkia lotua zaio aditzari.

Adib. : “Olerkia gogoz ikastea galdegin du irakasleak.”

“Arto biltzea ez da gehiago eskuz egiten.”, etab. ...

B / Aditzaren jokia

Aditz jokatuaren artean aditz trinkoak eta aditz perifrastikoak bereizten dira.



1 : “Oihanean barna nabil.”

2 : “Oihanean barna ibiltzen naiz.”



Bi erranaldi hauek ez dute arraz zentzu bera (ikus azpiko eskema).

Aditz bera erabiltzen da : “ibili” aditza.

Baina 1. eta 2. erranaldietan, “ibili” aditzak ez du forma bera.

Batean, forma **trinkoa** du (“*nabil*”), bestean forma **perifrastikoa** agertzen da (“*ibiltzen naiz*”).

Ikus dezagun bi erranaldi hauen ekintzak non kokatzen diren :



B.1 : Aditz trinkoa

“**Bagoaz** aitaren autoan Donibane Garazira buruz. Orhi mendia ikusten da urrutian bere elurrezko txapelarekin.”

“Donibane Garazi” in *Irakurgaiak 3. zikloa* . Ikas euskal pedagogia zerbitzua . 6l. or.

Aditz trinkoa hitz bakar batez osatua da. Forma **sintetikoa** du.

Adib. : “bagoaz”, « nator », « dabilta »...

Ez dute aditz guziek forma trinkoa hartzen. (ikus eranskina - “aditz trinko erabilienak”)

- ♦ Aditz trinko zenbaiten jokaera orainaldian eta *NOR* kasuan :

	JOAN	EGON	IBILI
NI	NOA	NAGO	NABIL
HI	HOA	HAGO	HABIL
HURA	DOA	DAGO	DABIL
GU	GOAZ	GAUDE	GABILTZA
ZU	ZOAZ	ZAUDE	ZABILTZA
ZUEK	ZOAZTE	ZAUDETE	ZABILTZATE
HAIEK	DOAZ	DAUDE	DABILTZA

- ♦ Beste adibide batzu *NORK* kasuan :

*Adib. : “Beroki gorri eder bat **daukat.**” (eduki)*

*“Platera nork hautsi duen ez **dakizu.**” (jakin)*

*“Hik **dakik** nondik etorri diren.” (jakin)*

B. 2 : Aditz perifrastikoa

“Bagoaz aitaren autoan Donibane Garazira buruz. Orhi mendia **ikusten da** urrutian bere elurrezko txapelarekin.”

“Donibane Garazi” in *Irakurgaiak 3. zikloa* . Ikas euskal pedagogia zerbitzua . 61. or.

Aditza molde perifrastikoan jokatzeko delarik bi hitzez osatua da.
Adizkiak laguntzaile bat behar du. Osagai hau **aditz laguntzailea** deitzen da.

Aditz lexikala

+

Aditz laguntzailea

=

Aditz perifrastikoa

*Adib. : “... mendia **ikusten da** ...”*

- ✓ Euskal aditz laguntzailea :

Aditz laguntzaile motak

	NOR motako aditzak	NORK motako aditzak
Objektibitatea	IZAN (nor eta nor/nori)	*EDUN (nor/nork eta nor/nori/nork)
Subjektibitatea	*EDIN (nor eta nor/nori)	*EZAN (nor/nork eta nor/nori/nork)

B. 3 : Aditz alokutiboa

“Maialen hondartzan ikusi **diat**. Harezko gazteluak eraiki **ditiagu**. Baloiarekin jostatu **gaituk** ere. Azkenik, oskolak bildu **ditiagu** berant arte.”

Kasu marka horrek solaskidearekin den harreman mota erakusten du.

“Sagu bat sartu da etxean.”	Ez alokutiboa	
“Sagu bat sartu duzu etxean.”	Alokutiboa	ZUKA (Nori mintzo ? Zuri.)
“Sagu bat sartu duk/n etxean.”	Alokutiboa	HIKA (Nori mintzo ? Hiri.)
“Sagu bat sartu duxu etxean.”	Alokutiboa	XUKA (Nori mintzo ? Xuri.)

(ikus alokutiboaren taulak gehigarrietan)

Kasu :

*Zure lagunekin jostatzen gaituk/gaitun.	<i>Okerra</i>
Zure lagunekin jostatzen gaituzu/ gara .	<i>Zuzena</i>
*Baionara izan datekek.	<i>Okerra</i>
Baionara izan dukek.	<i>Zuzena</i>
*Logela apaintzen ahal litzatekek.	<i>Okerra</i>
Logela apaintzen ahal hukek.	<i>Zuzena</i>

Baina, forma alokutiboa ez da beti erabiltzen ahal.
Hona zein kasutan debekatua den erabiltzea :

- Perpaus txertatuetan

Adib. : **Erran zioagu telebista gehiegi behatzea ez **dukala** ona begientzat.* *Okerra*
*“Erran zioagu/diogu telebista gehiegi behatzea ez **dela** ona begientzat.”* *Zuzena*


- Galdera perpausetan

Adib. : **Hitzeman zuena ekarri **dik** ?* *Okerra*
*“Hitzeman zuena ekarri **du** ? ”* *Zuzena*


3 - Aditz jokoa

Aditzaren jokoa, **aspektua**, **tempusa**, **modua** eta **pertsonaren** markak agertzen dira. Kasu-marka horiek aditz nagusian edo laguntzailean ager daitezke.


Aditz perifrastikoaren kasuan :



A / Aditzaren aspektua



A. 1 : Aditzaren aspektua zer da ?



1. « *Aitak auto eder bat **erosi du.*** » —————> « Erosi du » aspektuduna da.
2. « *Aitak autoa egun **eros dezake.*** » —————> « Eros dezake » ez da aspektuduna.

Aditz perifrastikoetan badira **aspektu-markak** dituzten adizkiak.
Aspektu-marka **aditz nagusian** bakarrik agertzen da.

Aditz oinari « **-i-** », « **-tu** » edo « **-du** » atzizkia erantsia zaiolarik orduan **aspektu-marka** biltzen duela erraten ahal dugu. (ikus EGLU II. Liburukia, 114. & 115.or)

Adib. : erosi, hartu, saldu ...

Aspektu-markaren bitartez, mintzo denak prozesu bat adierazten du : ekintza edo egoera **bururatu bat**, **bururatua ez den** prozesua, edo **geroa**, gertatu beharra den zerbait.

A. 2 : Aspektu-markak **ekintza burutua** dela adierazten ahal du ...

Kasu honetan partizipioa erabiltzen da.

*Adib. : « Gasnak merkatuan **saldu** dituzu. », « Liburuak **ekarri** ditu. », « Aitatxi **ikusi** dut. » ...*

A. 3 : Aspektu-markak **geroa** adierazten ahal du ...

Geroaren adierazteko **-KO** marka da gehienik erabiltzen.

*Adib. : « Gasnak merkatuan **salduko** dituzu. », « Liburuak **ekarriko** ditu. », « Aitatxi **ikusiko** dut. »*

-EN marka ere aurki daiteke.

*Adib. : « Ardiak mendira **eramanen** ditugu. », « Bixkotxa **janen** dugu. » ..*


A. 4 : Aspektu-markak **ekintza ez dela burutua** adierazten ahal du.

Hemen sartzen dira lehen bi sailetan kokatzen ez direnak.

-TZEN marka erabiltzen da ekintza ez dela bururatua adierazteko.

*Adib. : « Hamar kilo gasna **saltzen** dituzu. », « Liburuak **ekartzen** ditu. »,
« Aitatxi **ikusten** nuen. »*

B / Aditzaren tempusa (edo aldia)



Tempusak, ekintza **iragana** edo **iragana ez** denetz adierazten du. Beraz, tempusean bereizten dira **oraina** eta **iragana** eta marka aditz laguntzaileak du ekartzen.

"Ilunabar batez, Pettan **jarri zen** arrunt gogoetaturik.
Akiduraz lehertua **zagon**."

"Pettan xirulari" in *Irakurgaiak 3. zikloa* . Ikas euskal pedagogia zerbitzua . 142. or.

- Oraina = " DA "
- Iragana = " ZEN "

Aditz perifrastikoa	Aditz trinkoa
«... Pettan jarri da ...»	«Akiduraz lehertua dago »
«... Pettan jarri zen ...»	«Akiduraz lehertua zagon » (... edo zegoen)

C / Aditzaren moduak

Aditz laguntzailea(•)

Moduaren kokagunea

Ezaugarri gramatikal bat da **modua**.

Aditzak egintza nola adieraziko duen erakusten du moduak.

Euskaraz, lau modu badira : indikatiboa – ahalera – subjuntiboa – agintera

C . 1 : Indikatiboa

Indikatiboak egiazko ekintza adierazten du. Errealaren modua da.

Indikatiboak errealitatea seinalatzen du.

Izan eta ***edun** aditz laguntzaileak erabiltzen dira bakarrik.

*Adib. : “ Iratira joan **gira** ”. (izan), “ Noiz abiatuko garen erabakiko **dugu**.” (*edun)*

Indikatiboaren taula

(taula osoa eranskinetan)

INDIKATIBOA

BALDINTZAKOAK	ORAIN	NOR	NOR	NORI	du — t (hura nik) nor nork	NOR	NORK	NOR	NORI	NORK															
		naiz haiz da gara zara zarete dira	na ha ga za za	tzai tzai zai zai zai zai zai		t k/n o gu zu zue e	t k/n o gu zu zue te	t k/n o gu zu zue te																	
	LEHEN	nintzen hintzen zen ginen zinen zineten ziren	NOR	NORI	nin hin zi gin zin zin zi	tzai tzai tzai tzai tzai tzai tzai	t k/n o gu zu zue e	n n n n n n n	nuen huen zuen genuen zenuen zenuten zuten	nituen hituen zitzen genituen zenituen zenituzten zituzten	NOR	NORK	nind hind () gint zint zint ()	u u — u u zte	t k/n — gu zu zue te	n n en n n n n	NOR	NOR	NORI	n n h z gen zen zen z	i(zki) gu n zu zue e	n n n n n te n			
		BALDINTZA	banintz bahintz balitz bagina bazina bazinete balira	NOR	NORI	ba ba ba ba ba ba ba	nin hin li gin zin zin li	tzai tzai tzai tzai tzai tzai tzai	t k/n o gu zu zue te	ba ba ba ba ba ba ba	n h l gen zen zen l	t k/n o gu zu zue e	te te	NOR	NORK	nind hind () gint zint zint ()	u u — u u zte	t k/n — gu zu zue te	n n en n n n n	NOR	NOR	NORI	ba ba ba ba ba ba ba	n h l gen zen zen l	i(zki) gu n zu zue e
	ORAIN	nintzateke hintzateke litzateke ginateke zinateke zinatekete lirateke	nin hin li gin zin zin li	tzai tzai tzai tzai tzai tzai tzai	t k/n o gu zu zue e	ke ke ke ke ke ke ke	n h l gen zen zen l	t k/n o i(zki) gu ke zu zue e	ke ke ke ke ke ke ke																
		LEHEN	nintzatekeen hintzatekeen zatekeen ginatekeen zinatekeen zinateketen ziratekeen	nin hin zi gin zin zin zi	tzai tzai tzai tzai tzai tzai tzai	t k/n o gu zu zue e	ke ke ke ke ke te ke	n h z gen zen zen z	t k/n o i(zki) gu ke zu zue e	ke ke ke ke ke te te															

C. 2 : Ahalera (edo potentziala)

POTENTZIALA	ORAIN	naiteke haiteke daiteke gaitezke zaitezke zaitezket daitezke	NOR na ki t ke ha ki k/n ke da ki o ke ga ki zki gu ke za ki zki zu ke za ki zki zue ke da ki zki e ke	NORI t ke k/n ke o ke gu ke zu ke zue ke e ke			NOR na zake t ha zake k/n de zake — ga it zake gu za it zake zu za it zake te zue d it zake te	NORK t k/n — gu zu zue te	NOR t ke t k/n ke k/n io ke — gu ke gu zu ke zu zue ke zue ie ke te
	LEHEN	nintkeen hintkeen zitekeen gintezkeen zintezkeen zintezketen zitezkeen	NOR nen ki t ke en hen ki k/n ke en ze ki o ke en gen ki zki gu ke en zen ki zki zu ke en zen ki zki zue ke te n ze ki zki e ke en	NORI t ke en k/n ke en o ke en gu ke en zu ke en zue ke te n e ke en	nezakeen hezakeen zezakeen genezakeen zenezakeen zenezaket zezaket	nitzakeen hitzakeen zitzakeen genitzakeen zenitzakeen zenitzaket zitzaket	NOR nint zake t n hint zake k/n n () — en gint zake gu n zint zake zu n zint zake te zue n () te n	NORK t n k/n n — en gu n zu n zue n te n	NORK t ke en k/n ke en io ke en gen ieza(zki) gu ke en zen zu ke en zen zue ke te n z ie ke te n
	HIPOTETIKOA	nintke hintke liteke gintezke zintezke zintezket litezke	NOR nen ki t ke hen ki k/n ke le ki o ke gen ki zki gu ke zen ki zki zu ke zen ki zki zue ke te le ki zki e ke	NORI t ke k/n ke o ke gu ke zu ke zue ke te e ke	nezake hezake lezake genezake zenezake zenezaket lezaket	nitzake hitzake litzake genitzake zenitzake zenitzaket litzaket	NOR nint zake t hint zake k/n () — gint zake gu zint zake zu zint zake te zue () te	NORK t k/n — gu zu zue te	NORK t ke k/n ke io ke gen ieza(zki) gu ke zen zu ke zen zue ke te l ie ke te

Ahalera adierazten da. “-ke” aurkitzen da orduan.

***Edin** eta ***ezan** aditz laguntzaileak erabiltzen dira.

→ Ahalera erreala (berehalakoa) : kasu honetan ekintza egiazki gerta daiteke.

*Adib. : “Gatu polit honen ondora hurbil **naiteke**.”*

→ Ahalera irreala : kasu honetan ekintza gerta liteke, beharbada. Ez da hain erreala.

Kasu honetan desberdintzen ditugu :

■ Ahalezko irreala, ez hain gertagarria.

*Adib. : “Bixkotx bat ekar **lezake**.”*

■ Ahalezko irreala, **iraganekoa** = atzo, iaz, etab.

*Adib. : “Bixkotx bat ekar **zezakeen**.”*

C. 3 : Subjuntiboa

SUBJUNTIBOA	ORAIN	nadin hadin dadin gaitezen zaitezen zaitezten daitezen	NOR na ki t n ha ki k/n n da ki o n ga ki zki gu n za ki zki zu n za ki zki zue te n da ki zki e n	NORI t k/n o gu zu zue e			NOR na za t n ha za k/n n de za — n ga it za gu n za it za zu n za it za te zue n d it za te n	NORK t n k/n n — n gu n zu n zue n te n	NOR t n k/n n io n gu n zu n zue n te n
	LEHEN	nendin hendin zedin gintez zintez zintezten zitez	NOR nen ki t n hen ki k/n n ze ki o n gen ki zki gu n zen ki zki zu n zen ki zki zue te n ze ki zki e n	NORI t n k/n n o n gu n zu n zue te n e n	nezan hezan zezan genezan zenezan zenezaten zezaten	nitzan hitzan zitzan genitzan zenitzan zenitzaten zitzaten	NOR nint za t n hint za k/n n () — n gint za gu n zint za zu n zint za te zue n () te n	NORK t n k/n n — n gu n zu n zue n te n	NORK t n k/n n io n gen ieza(zki) gu n zen zu n zen zue te n z ie te n
	HIPOTETIKOA	nintke hintke liteke gintezke zintezke zintezket litezke	NOR nen ki t hen ki k/n le ki o gen ki zki gu zen ki zki zu zen ki zki zue le ki zki e	NORI t k/n o gu zu zue e	nezake hezake lezake genezake zenezake zenezaket lezaket	nitzake hitzake litzake genitzake zenitzake zenitzaket litzaket	NOR nint zake t hint zake k/n () — gint zake gu zint zake zu zint zake te zue () te	NORK t k/n — gu zu zue te	NORK t k/n io gen ieza(zki) gu zen zu zen zue l ie

Subjuntiboak **nahia** adierazten du. Hala ere, aginduak ere eman daitezke.

Subjuntiboaren marka “-n” da eta bukaeran agertzen da.

***Edin** eta ***ezan** dira aditz laguntzaileak.

*Adib. : “Ez dut nahi eri **dadin** hotz honekin.”, “Giltza lotu dut ez **dezadan** gal.”...*

C. 4 : Agintera (edo inperatiboa)

INPERATIBOA		NOR			NORI						NOR			NORK						NOR			NORI			NORK		
		()			()						()			()			()			()			()			()		
	hadi	ha	ki		ha	ki					na	za		()			t			t			k/n			()		
	bedi	be	ki		be	ki					be	za		—			k/n			k/n			—			—		
	()	()			()						ga	it	za	()			io			(B) ieza(zki)			gu			()		
	zaitez	za	ki	zki	za	ki	zki	zue	te					zu			zu			zu			zu			zu		
	zaitezte	za	ki	zki	za	ki	zki	zue	te					zue			zue			zue			zue			zue		
	bitez	be	ki	zki	be	ki	zki	e			b	it	za	te			ie			ie			te			te		

Aginduen emateko erabiltzen da agintera.

Beti **orainaldian** erabiltzen da eta bigarren pertsonan (hi, gu, zu, zuek).

***Edin** eta ***ezan** dira aditz laguntzaileak.

*Adib. : “Isil **zaitezte** !”*

D / Pertsona-markak

Aditzak badu beste ezaugarri bat : **pertsona**. Erranaldian diren pertsonak biltzen ditu.


Adibidez, erranaldiaren subjektua nor den adierazten du ezaugarri horrek.

Pertsona-marka aditz jokatueta**n** bakarrik aurkitzen da.

Hauek **NOR**, **NORI** eta **NORK** dira.

NOR	NORI	NORK
Ni	Niri	Nik
Hi	Hiri	Hik
Hura	Hari	Harek
Gu	Guri	Guk
Zu	Zuri	Zuk
Zuek	Zuei	Zuek

Adib. : “**Amaia** etorri da.” **NOR**
 “**Nik** ikusi zaitut.” **NOR / NORK**
 “**Guk** **lagunari** **opariak** ekarri dizkiogu.” **NOR / NORI / NORK**
 “ **Artzainak** **xakurrari** **janaria** eman dio.” **NOR / NORI / NORK**



D. 1 : Pertsona-marka forma perifrastikoa duen aditzean

Forma perifrastikoa duen aditzean, pertsona-marka aditz-laguntzailean agertuko da.

- Aditz-laguntzailearen aitzinean kokatzen denean:

Adib. : IZAN aditzarekin

NOR

naiz

haiz

da

gara

zara

zarete

dira

- Aditz-laguntzailearen aitzinean eta azken muturrean agertzen denean :

Adib. : EMAN aditzarekin

NOR-NORK

eman d(it)ut

eman d(it)uk / dun

eman d(it)u

eman d(it)ugu

eman d(it)uzu

eman d(it)uzue

eman d(it)u(z)te

NOR-NORI-NORK

eman di(zki)ot

eman di(zki)ok / di on

eman di(zki)o

eman di(zki)ogu

eman di(zki)ozu

eman di(zki)ozue

eman di(zki)ote

- Pertsona-markak plurala ere adierazten du.

Adib. : "Ikusi nauzu" —————▶ "Ikusi gaituzu"

D. 2 : Pertsona-marka forma trinkoa duen aditzean

Molde trinkoa duen aditzak ere pertsona-marka hartzen du.

- Aitzinean :

Adib. : ETORRI aditzarekin

NOR

nator

hator

dator

gatoz

zatoz

zatozte

datoz

→ Aitzinean eta gibleko muturrean :

Adib. : ETORRI aditzarekin

NOR/NORI

nator ki	t	
hator ki	k/n	
dator ki	o	
gatoz ki	gu	
zatoz ki	zu	
zatoz ki	zue	te
datoz ki	e	

→ Aitzinean, erdian eta gibleko muturrean :

Adib. : ERAMAN aditzarekin

NOR/NORI/NORK

	t	T
	k/n	K/N
dakar (-) ki	o	-
	gu	GU
	zu	ZU
	zue	ZUE
dakar (z) ki	e	TE

3. ATALA :

EUSKAL

DEKLINABIDEA

1/ Deklinabidea zer da?

2/ Zer da deklinatzen

3/ Euskal deklinabide kasuak

A: Kasu gramatikalak

B: Leku denborazko kasuak

C: Gainerako kasuak

4/ Hitza bokalez edo kontsonantez bururatzen denean

A: Hitza bokalez bururatzen denean

B: Hitza kontsonantez bururatzen denean

5/ Beste arau batzuk

A: Diptongoen kasua

B: “a”organikoa denean

“Anitz herritann, Zanpantzar izeneko pertsonaiari urteann iragan gehiegikeria guziak leporatzen zizkioten eta epaitu ondoan erretzen zuten.”

“Thauteri” in *Irakurgaiak 3. zikloa* . Ikas euskal pedagogia zerbitzua . 48.or.

1 - Deklinabidea zer da ?

Deklinabidea izen, *izenordainek* edo adjektiboek hartzen dituzten kasu-marken paradigma da. (Euskaltzaindiaren definizioa – EGLU-I 315. or, 8-9 eta 10. lerroak)

Hitz bat deklinatzen da hitz horren muturra aldatzen delarik, atzizki bat gehitzen zaiolarik.

2 - Zer da deklinatzen ?

Euskaraz gauza anitz deklinatzen dira, hala nola : izenak, izenlagunak, izenordainak, erakusleak, etab.

Izen multzoaren **azken hitza** da beti deklinatzen.
Deklinabide kasua **atzizkian** agertzen da.

*Adib. : “Amaia**k** loreak ekarri dizkio amari baratze**tik**.”*

Deklinagaia	+	atzizkia
-------------	---	----------

*Adib : Amaia + **k***
*ama + **ri***
*baratze + **tik***

(konparaketa : erdaraz preposizioa erabiltzen da, euskaraz atzizkiak du informazioa ematen.)

Deklinabideak izen-sintagman kokatzen dira (-ø, -A, -K, -REN, -KO) eta aditz-sintagman (beste guziak).

3 - Euskal deklinabide kasuak

A / Kasu gramatikalak

	Mugagabea		Singularra		Plurala	
NOR. Absolutiboa	Ø	Ø	a + Ø	A	ak + Ø	AK
NORK. Ergatiboa	Ø + K	(E)K	a + K	Ak	ak + K	EK

*Adib. : “Euri**ak** ileak busti dizkit.” (NORK kasua)*

*“Ogia eman diot papogorri**ari**.” (NORI kasua)*

B / Leku denborazko kasuak

	Mugagabea		Singularra		Plurala	
NON. Inesiboa	Ø + N	(E)TAN	a + N	(E)AN	ak + N	ETAN
NORENGAN(1).	Ø + GAN	(R) (EN)GAN	a + GANA	A(REN)GAN	ak + GAN	ENGAN
NONGO. Leku denborazkoa	Ø + KO	(E)TAKO	a + KO	(E)KO	ak + KO	ETAKO
NORA. Adlatiboa	Ø + A	(E)TARA	a + A	(E)RA	ak + A	ETARA
NORENGANA.	Ø + GANA	(R) (EN)GANA	a + GANA	A(REN)GANA	ak + GANA	ENGANA
NORAINO. Adl. Bukatuzkoa	Ø + AINO	(E)TARAINO	a + AINO	(E)RAINO	ak + AINO	ETARAINO
NORENGANAINO.	Ø + GANAINO	(R) (EN)GANAINO	a + GANAINO	A(REN)GANAINO	ak + GANAINO	ENGANAINO

(1) *Norengan* edo *noren baitan* (lp.).

(2) *Norantz* edo *nora buruz* (lp.).

*Adib. : “Baion**ako** best**etara** noa.” (NONGO eta NORA kasuak)*

*“Tkastol**atik** nator.” (NONDIK kasua)*

*“Geltok**ian** igurikatzen du.” (NON kasua)*

Kasu :

Izen bizigabeak (*gauzak*) eta bizidunak (*jendea, animaliak*) ez dira berdin deklinatzen leku-denborazko deklinabidean.

Bizidunei doazkien atzizkiak erabiltzen dira jendea eta animalia(k) direlarik aipagai : **-gan**, **-gandik**, **-gana**. (“Morfosintaxia” - Eimaren estilo liburua – 50.or)

C / Gainerako kasuak

	Mugagabea		Singularra		Plurala	
NORIK. Partitiboa	Ø + IK	(R)IK				
NOREN. Edutezko genetiboa	Ø + EN	(R)EN	a + EN	AREN	ak + EN	EN
NOREKIN. Sozietiboa	Ø + EGIN	(R)EGIN	a + EGIN	AREKIN	ak + EGIN	EGIN
NORTAZ. Instrumentala	Ø + Z	(E)Z	a + Z	AZ	ak + Z	EZ
NORENGATIK. Motibatiboa	Ø + GATIK	(R)(EN)GATIK	a + GATIK	ARENGATIK	ak + GATIK	ENGATIK
NORENTZAT. Destinatiboa	Ø + ENTZAT	(R)ENTZAT	a + ENTZAT	ARENTZAT	ak + ENTZAT	ENTZAT

*Adib. : “Maialen**en** pirripita da.” (NOREN kasua)*

“Nortaz mintzo zarete ?” (NORTAZ kasua)

*“Marraski hau Txomin**entzat** egin dut.” (NORENTZAT kasua)*

Kasu :

Partitiboaren marka erabiltzen denean, orduan izen sintagmak **mugagabea** izan behar du, hots artikulurik gabe. Eta aditza singularrean egoiten da.

*Adib. : *“Ez dut jantzi ederrarik erosi.”*

Okerra

**“Ez ditut jantzi ederrik erosi.”*

Okerra

*“Ez **dut** jantzi ederrik erosi.”*

Zuzena

Izen sintagma partitiboak ezezko perpausetan, galderetan, baldintzazkoetan eta baiezkoeetan erabiltzen dira.

Adib. : “Jantzi ederrik erosi duzua ?”

*“Gasn**arik** erosi duzu merkatuan ?” (a ez da artikulua baizik eta “a” itsatsia)*

“Bazen jenderik Herri Urratsen”.

Kasu : (“Morfosintaxia” - Eimaren estilo liburua – 93. or)

Kasu instrumentalean (NORTAZ) pluraleko atzizkia -ez da.

*Adib. : *“Lagun baten nekezietaz mintzo gara.”*

Okerra

*“Lagun baten nekezie**z** mintzo gara.”*

Zuzena

*Batzuk zenbatzailearen plurala “batzue**z**” da, eta ez “batzuetaz.”*

4 - Hitza bokalez edo kontsonantez bururatzen denean

A / Hitza bokalez bururatzen denean

		Mugagabea	Singularra	Plurala	Izen bereziak mugagabea	
	NOR	mendi	mendi-a	mendi-ak		
	NORK	mendi-k	mendi-ak	mendi-ek	Okabe-k	
	NORI	mendi-ri	mendi-ari	mendi-ei	Okabe-ri	
	PARTITIBOA	mendi-rik				
Bizigabea	NON	mendi-tan	mendi-an	mendi-etan	Okabe-n	Bizigabea
	NONGO	mendi-tako	mendi-ko	mendi-etako	Okabe-ko	
	NORA(T)	mendi-tara(t)	mendi-ra(t)	mendi-etara(t)	Okabe-ra(t)	
	NORANTZ	mendi-tarantz	mendi-rantz	mendi-etarantz	Okabe-rantz	
	NORAINO	mendi-taraino	mendi-raino	mendi-etaraino	Okabe-raino	
	NONDIK	mendi-tatik	mendi-tik	mendi-etatik	Okabe-tik	
	NOREN	mendi-ren	mendi-aren	mendi-en	Okabe-ren	
	NOREKIN	mendi-rekin	mendi-arekin	mendi-ekin	Okabe-rekin	
	INSTRUMENTALA	mendi-z	mendi-az	mendi-ez	Okabe-z	
	NORENGATIK	mendi-rengatik	mendi-arengatik	mendi-engatik	Okabe-rengatik	
	NORENTZAT	mendi-rentzat	mendi-arentzat	mendi-entzat	Okabe-rentzat	
	PROLATIBOA	mendi-tzat			Okabe-tzat	

Biziduna	NORENGAN	seme-rengan	seme-arengan	seme-engan	Peio-rengan	Biziduna
	NONGO					
	NORENGANA(T)	seme-rengana(t)	seme-arengana(t)	seme-engana(t)	Peio-rengana	
	NORENGANANTZ	seme-renganantz	seme-arenganantz	seme-enganantz	Peio-renganantz	
	NORENGANAINO	seme-renganaino	seme-arenganaino	seme-enganaino	Peio-renganaino	
	NORENGANDIK	seme-rengandik	seme-arengandik	seme-engandik	Peio-rengandik	

Adib. : “Xabier mendira doa.”, “Xabier Pirinioetara doa.”

Izen berezia “a” batekin bururatzen denean :

Izen bereziak mugagabea	
Iparla-k	Iparla-rik
Iparla-ri	Iparla-ren
Iparla-n	Iparla-rekin
Iparla-ko	Iparla-z
Iparla-ra(t)	Iparla-rengatik
Iparla-rantz / Iparla-ra buruz	Iparla-rentzat
Iparla-raino	Iparla-tzat

B / Hitza kontsonantez bururatzen denean

	Mugagabea	Singularra	Plurala	Izen bereziak mugagabea	
	NOR	haran	haran-a	haran-ak	
	NORK	haran-ek	haran-ak	haran-ek	
	NORI	haran-i	haran-ari	haran-ei	
Bizigabea	NON	haran-etan	haran-ean	haran-etan	Bizigabea
	NONGO	haran-etako	haran-eko	haran-etako	
	NORA(T)	haran-etara(t)	haran-era(t)	haran-etara(t)	
	NORANTZ (1)	haran-etarantz	haran-erantz	haran-etarantz	
	NORAINO	haran-etaraino	haran-eraino	haran-etaraino	
	NONDIK	haran-etatik	haran-etik	haran-etatik	
	PARTITIBOA	haran-ik			
	NOREN	haran-en	haran-aren	haran-en	
	NOREKIN	haran-ekin	haran-arekin	haran-ekin	
	INSTRUMENTALA	haran-ez	haran-az	haran-ez	
	NORENGATIK	haran-engatik	haran-arengatik	haran-engatik	
	NORENTZAT	haran-entzat	haran-arentzat	haran-entzat	
	PROLATIBOA	haran-tzat			
				Baztan	
				Baztan-ek	
				Baztan-i	
				Baztan-en	
				Baztan-eko	
				Baztan-era(t)	
				Baztan-erantz	
				Baztan-eraino	
				Baztan-etik	
				Baztan-ik	
				Baztan-en	
				Baztan-ekin	
				Baztan-ez	
				Baztan-engatik	
				Baztan-entzat	
				Baztan-tzat	

Biziduna	NON	gizon-engan	gizon-arengan	gizon-engan	Biziduna
	NONGO				
	NORA(T)	gizon-engana(t)	gizon-arengana(t)	gizon-engana(t)	
	NORANTZ (1)	gizon-enganantz	gizon-arenganantz	gizon-enganantz	
	NORAINO	gizon-enganaino	gizon-arenganaino	gizon-enganaino	
	NONDIK	gizon-engandik	gizon-arengandik	gizon-engandik	
				Kaiet-engan	
				Kaiet-engana	
				Kaiet-enganantz	
				Kaiet-enganaino	
				Kaiet-engandik	

(1) Norantz edo nora buruz (lp).

Adib. : “*Tsasontzia mendiaren* ondotik pasatu da.”

“*Tsasontzia mendien* ondotik pasatu da.”

Kasu :

* “*Urtarrilan eta otsailan izan animazioak*”

Okerra

“*Urtarrilean eta otsailean izan animazioak*”

Zuzena

* “*Astelehenetik ostiralara lan egiten dugu*”

Okerra

“*Astelehenetik ostiralera lan egiten dugu*”

Zuzena

Kasu hauetan **-a** artikulua da, ez da a organikoa (urtarril, astelehen).

5 - Beste arau batzuk

A / Diptongoz bururatzen diren hitzak deklinaturik

Zer da diptongoa ?

Diptongoa silaba berean bokal-bikote bat dugunean gertatzen da. **-au**, **-ai**, **-ei** diptongoak dira.

Diptongoz bururatzen diren hitz zenbait : lau, gau, egitarau, zelai, hodei...

Diptongoz bururatzen diren hitzak bokalez amaituak bezala deklinatzen dira.
*Adib. : "Futbol-zelaira**a** noa", "Hitzordua egungo egitarau**an** sartuko dut".*

Baina kasu zeren eta arau honek bi salbuespen baititu :

- GAU hitza :
Gau hitza kontsonantez bururatzen diren hitzak bezala deklinatzen da leku-denborazko kasuetan eta zertaz kasuan.
*Adib. : "Gaue**ko** bostak dira", "Bihar gaue**an** helduko da".*
- LAU zenbakia :
 Izen gisa erabilia delarik, *lau* hitza bokalez bururatzen diren hitzak bezala deklinatzen da..
*Adib. : "Maiatzaren lau**an** abiatuko gira."*
 (Salbuespena: izenordain gisa erabilia delarik *lau* hitzak deklinabide berezia du.
*Adib. : Haizea ufatzen hasi da goizeko laure**tan**."*...)

B / "-a" organikoa duten hitzak deklinaturik

(ikus lehen zatia "Izen sintagma"; 1 - Izena C / "-a" organikoa)

a + a = a *egia + aren = egi**aren***

Adib. : "Egiaren erraitea hobe da."

a + e = e *ideia + ekin = ideie**kin***

Adib. : "Zure ideiekin urrun joanen gara."

4. ATALA :

PERPAUSA

1/ Zer da perpauza eta nola egin da ?

A: Definizioa

B: Perpausen egitura

2/ Perpauz bakunak

A: Definizioa

B: Adierazpen, galde, aginte eta harridura perpauzak


3/ Perpauz elkartuak

A: Perpauz juntatuak

B: Mendeko perpauzak

4/ Perpauz jokatuak eta perpauz ez jokatuak

5/ Baiezko eta ezezko perpauzak



1 – Perpauza zer da eta nola egina da ?

“Gilenek zangoa hautsi du. Bai, bizikletatik erori da.”

“Gilenen hegazkinak” in *Irakurgaiak 2. zikloa* . Ikas euskal pedagogia zerbitzua . 96. or.

A : Definizioa

Orain arte, aipatu ditugu osagai batzuk : izena, adjektiboa, adberbioa, aditza...

Osagai hauek elkartzen dira multzo batzuen osatzeko : **sintagmak** dira.

Izenaren inguruan diren osagaiek **izen sintagma** osatzen dute, aditzaren inguruan diren osagaiek aldiz **aditz sintagma**.

Sintagma horiek elkarri lotuz, **perpausak** osatzen dira.


B : Perpauzaren egitura

Perpauz gehienek badute **aditz** bat : “hautsi du”, “erori da” ...

Beste elementu batzuk biltzen dira aditzaren inguruan, perpauzaren osatzeko.

Elementu horiek **osagarriak** deitzen dira.

Osagarri bakoitzak badu bere funtzioa.

“Gilenek zangoa hautsi du.” 

Aditzak osagarri bat, bi edo gehiago ukan ditzake.

Adib. : “ Ximun erori da.”



Adib. : “ Ximun traktoretik erori da atzo.”



2 - Perpaus bakunak (edo lokabeak)

“Martintxo kantuz jautsi zen menditik ibarrera. Herritar guziak bildu ziren haren inguruan. Martintxok botak kendu zituen. Gariz bete-beteak ziren.”

“Ipuin herrikoa” in *Irakurgaiak 2. zikloa* . Ikas euskal pedagogia zerbitzua . 170. or.

A: Definizioa

Perpaus bakuna



Aditz bakar batez osatua da **perpaus bakuna**.

Adib. : “Martintxo kantuz jautsi zen...”

“Herritar guziak bildu ziren...”

“Martintxok botak kendu zituen.”

“Gariz bete-beteak ziren.”

B : Adierazpen, galde, aginte, eta harridura perpausak

Perpaus bakunak lau motakoak izan daitezke

- Adierazpen perpausa :
Perpaus hauek informazio bat zabaltzen dute.
Adib. : “Egun zoora goaz.”
- Galde perpausa :
Perpaus hauen baitan galde bat bada. Zerbait galdegiten da.
Adib. : “Amaren bixkotxa jan duzu ?”
- Aginte perpausa :
Perpaus honek eske, nahia, aginte bat adierazten du.
Zerbaiten eginarazteko erabiltzen da.
Adib. : “Etor zaitez honara, otoi.”
- Harridura perpausa :
Perpaus honek harridura, ustegabea, poza adierazten du adibidez.
Adib. : “Hau, haur ederra !”

3 – Perpaus elkartuak

Perpaus elkartuak

Aditza

Aditza

Perpaus bakunak konbinatzen ahal dira perpaus elkartuak osatuz.
Perpaus elkartuetan **aditz bat baino gehiago** aurkitzen da beraz.

Nola ager daitezke ?

- Bi perpaus, edo gehiago, elkarren artean jarriak, lotura-hitzik gabe : *alborakuntza* da.

Adib. : “Aro ederra da, eguzkia dirdiratsu da.”

- Bi perpausa, edo gehiago, juntagailu baten bidez lotuak : *juntadura* da.

Adib. : “Amaia bulegora sartu da eta ordenagailua piztu du.”

- Perpaus bat beste bati txertatua : *menperakuntza* da.

Adib. : “Ikasleek liburuak mahai gainean zituzten irakaslea gelan sartu delarik.”

A : Perpaus juntatuak

“Aitatxik aterki beltxa besapean hartu du, Maika esku batetik, Uxue bestetik **eta** hirurak badoaz.”

“Bixintxoak” in *Irakurgaiak 2. zikloa* . Ikas euskal pedagogia zerbitzua . 87. or.

Osagaien elkartzeko juntagailuak erabiltzen dira : EDO, ETA, ALA, etab...
Juntagailuak hitz solteak dira, ez dira atzizkiak.
Maila bereko osagaiak elkartzen dituzte.

A. 1 : Emendiozko juntagailuak : ETA

Perpau **kopulatiboetan** agertzen dira juntagailu hauek.
ETA juntagailu nagusia da (gehi honen eratorriak BAITA „ERE, etab.)

Maila bereko osagaiak biltzen dituzte.
“Kidekoak” behar dira izan. (ikus Euskal gramatika praktikoa, 198 or)

*Adib. : “Hondartzara joan gara **eta** bainatu gara.”
“Liburutegian naiz **eta** aldizkari bat irakurtzen dut.”*

Nahi bezainbat osagai lotzen ahal dira, nahiz eta ez den normalean hainbeste juntagailu jartzen :

*Adib. : “Egun, ama igerilekura doa **eta** aita banketxera doa **eta** ni liburutegira noa.”*
Hobe da juntagailuen murriztea :
“Egun, ama igerilekura doa, aita banketxera eta ni liburutegira noa.”

Kasu : (Eimaren estilo liburua – Morfosintaxia – 11.or)

Hobe da juntagai guztiak deklinatzea.

*Adib. : “Kostalde **eta** barnekaldean elurra egin du.”* Okerra

*“Kostalde**an** **eta** barnekalde**an** elurra egin du.”* Zuzena

A. 2 : Juntagailu hautakariak : EDO, ALA

EDO eta **ALA** perpau **disjuntiboen** juntagailuak dira.
Hautaketaren adierazteko erabiltzen dira.

Perpau multzo andana bat lot daiteke juntagailu hauen bitartez.

*Adib. : “Futbolean aritzen ahal gara **edo** pilotan (aritzen ahal gara), **edo** saskibaloian (aritzen ahal gara) **edo**...”*

Hobe da juntagailuen murriztea :
*“Futbolean, pilotan **edo** saskibaloian aritzen ahal gara.”*

- × **EDO** juntagailua **adierazpen** perpausekin eta **perpau konpletiboekin** erabiltzen da :

*“Berdez **edo** urdinez margotzen ahal duzu.”*

*“Berdez **edo** urdinez margotzen ahal dugula erran du.”*

- × **ALA** juntagailua **galde** **perpausetan** eta **zehargaldeetan** erabiltzen da :

*“Berdez **ala** urdinez margotzen duzu ?”*

*“Berdez **ala** urdinez margotzen **duen** jakin nahi dut.”*

A. 3 : Juntagailu aurkariak : **BAINA, BAIZIK ...**

Perpauz **adbertsatiboen** juntagailuak dira.

Bi osagaien arteko **aurkaritzaren** adierazteko erabiltzen dira.

- x **BAINA** bi perpausen artean agertzen da.
*Adib. : "Etxe hau polita da **baina** sobera kario/ korioegi."*
- x **ALDIZ, BERRIZ**, etab., bigarren perpausaren lehen elementuaren ondoan kokatzen da. Bi kakotxen artean jartzen da.
*Adib. : "Maddalenek bi txokolate mokor jan ditu, Andonik, **berriz**, lau."*
- x **BAIZIK, BAINO, ...** bigarren perpausaren buruan jartzen da. Lehen perpausak ezezkoa izan behar du.
*Adib. : "Egun **ez** dugu geografia landuko, matematika **baizik**."*
- x **HALA ERE, DENA DEN, ...** bi perpausen artean aurkitzen da, batzuetan bigarrenaren lehen elementuaren ondoan.
*Adib. : "Barazki guti dira baratzean. **Hala ere**, entsalada zenbait bildu ditut."*
- x etab. ...

Kasu :

Aipatu ditugun juntagailu horiek ontsa hautatu behar dira erranaldia osatzerakoan.

Hautakaria ala emendiozkoa ?

*Adib. : * "Ez da gauza bera oihal xuri bat tita beltzekin **edo** oihal beltz bat tita xuriekin."*

Okerra

*"Ez da gauza bera oihal xuri bat tita beltzekin **eta** oihal beltz bat tita xuriekin."*

Zuzena

"Zer nahiago duzu : kafea edo tea ?"

Okerra

*"Zer nahiago duzu : kafea **ala** tea ?"*

Zuzena

- Denborazko perpauzak :
NOIZ galdeari ihardesten diote.
*Adib. : "Bazkalduko gara, Betti etxera sartuko **denean**."*
- Kausazko perpauzak :
 Kausaren adierazteko erabiltzen dira. **ZERGATIK** galdeari erantzuten diote.
*Adib. : "Zangoan min du, erori **baita**", "Ez du bozkatzen ahal gazteegi **delako**."*

Kasu :

Bait- partikulua aditz laguntzailearen edo trinkoaren aitzinean kokatzen da. Aditzari atxikia idatzi behar da : **bainaiz**, **baikara** eta ez *bai(t) naiz, *bai(t) gara, etab...

- Moduzko perpauzak :
NOLA, NOLAKOA galdeei erantzuten diete.
 Morfena erabiliena **-eN BEZALA** da.
Adib. : "Miren jantzia den bezala beztitzen ahal zara zu ere."
- Konparaziozko perpauzak :
 Nolakotasuna edo zenbatasuna adierazten dute.
 Hona egitura adibide batzuk :
 "-N BAINO ... -AGO"
*Adib. : "Nik uste **baino** arinago da." (nolakotasuna)*
"Egun atzo baino jende gehiago etorri da erakusketara." (zenbatasuna)
 "-N BEZAIN", "-N BESTE, BEZAINBAT (hegoaldeko idatzietan *adina* hitza aurki daiteke).
Adib. : "Zu ez zara ni bezain handia." (Ip)
"Zu ez zara ni adina handia." (Heg.)
- Helburuzko perpauzak :
 Helburua adierazten dute. **ZERTAKO** galdeari erantzuten diote
*Adib. : "Poltsa hau eramaten dut gaztainen **biltzeko**."*
- Baldintza perpauzak eta haien ondorioak :
*Adib. : "Elurak segitzen baldin **badu**, etxean egonen gara."*
*"Xanti etortzen baldin **bada**, elkarrekin jostatuko gara."*
Ba- aurrizkia baldintza markatzeko hizkia da. Aditzari lotzen da.

Kasu :

Baldintzazkoa ez denean, hizkia eta aditzaren artean beste hitz batzuk aurkitzen ahal dira. Orduan, **ba-** bakarrik idatzi behar da.
*Adib. : "Xantik **ba-** ote daki hori ?"*

- Ondorio perpauzak :
 Ondorioa adierazten dute.
*Adib. : "Aintzira **hain** da zikina **non** ezin den bainatu."*

4 - Perpauz jokatuak eta perpauz ez-jokatuak

“- Zaudezte ! Entzun oraino !, erran zuen Sanbaren aita. Ideia bat bururatu zait : basoko pasabide guztiak oztopatu eta soka bat ezarriko dugu ibaiaren zeharkatzeko.”

“Sanba” in *Irakurgaiak 3. zikloa* . Ikas euskal pedagogia zerbitzua . 59.or.

Maiz perpauzak aditz bat badu.

Aditz hura jokatua delarik **perpauz jokatua** deitzen da.

Aldiz, **aditz ez-jokatu** bat duelarik orduan **perpauz ez-jokatua** deitzen da.

Adib. : “Entzun oraino”, “Isil eta lo egin !” >> perpauza ez da jokatua.
“Ideia bat bururatu zait”, “Bixkotxa jan dut” >> perpauza jokatua da.

5 - Baiezko eta ezezko perpauzak

“- Aitatxi ez duk gehiago hemen. Amak zio (diok) zeruan dagoela; ez diat gehiago ikusiko. Nahi nitek hemen izan dadin, nirekin.”

“Gako miresgarria” - Beatrice Desormeaux – *Irakurgaiak 3. zikloa*, 109. or – Ikas

Perpauzak baiezkoak edo ezezkoak izan daitezke.

Ezezko perpauzetan **“ez”** edo **“ezin”** hitzak agertzen dira : *“Aitatxi ez duk gehiago hemen”, “ez diat gehiago ikusiko”.*

Adib. : “Bai, amaren bixkotxa jan dut.” >> Baiezko perpauza
“Amaren bixkotxa ez dut jan.” >> Ezezko perpauza

“Nik olerkia gogoz badakit.” >> Baiezko perpauza
“Zuk olerkia gogoz ez dakizu.” >> Ezezko perpauza

5. ATALA :

ORTOTIPOGRAFIA

1/ Euskal alfabetoa

2/ Ahoskera

3/ “a” organikoa

A: “a” itsatsia duten zenbait izen

B: “a” itsatsia duten zenbait atzizki

4/ Zenbakiak, tenorea eta data

A: Zenbakien idazkera

B: Tenorea

C: Data

5/ Laburdurak

A: Nazioarteko unitateak

B: Laburdura orokorrak, denbora, egunak

C: Gramatika laburdurak

1 – Euskal alfabetoa (Euskaltzaindiaren arauen arabera)

Euskal alfabetoa edo ABC-a hogeita zazpi letrak osatzen dute, ordena honetan jarriak, beren izena ondoan dutelarik:

Letra	Izena
a	a
b	be
c	ze
d	de
e	e
f	efe
g	ge
h	hatxe
i	i
j	jota
k	ka
l	ele
m	eme
n	ene
ñ	eñe
o	o
p	pe
q	ku
r	erre
s	ese
t	te
u	u
v	uve
w	uve bikoitza
x	ixa
y	i grekoa
z	zeta

Letra hauetatik *c* eta honen aldaera *ç* (*c* hautsia), *q*, *v*, *w* eta *y*, ohiko euskal hitzak idazteko erabiltzen ez diren arren, kanpotar izenak transkribatzeko beharrezkoak direlarik, euskal alfabetoan sartzen dira.

Komeni da, beraz, euskal hiztegiak *abc* honetako letra ordenaren arabera sailkatzea.

Bestalde, letra bikoitzak usu erabiltzen ditugu euskaraz. Hauetarik batzuk hitzari indar gehiago ematen diote. Enfasia da.

dd : Maddalen, Maddi...

ll : Pello, llabur...

tt : pottoka, ttipi...

2 – Ahoskera

Euskara ontsa ahoskatzea garrantzitsua da.

Hona taula honetan ezagutu behar diren arau nagusien zerrenda :

... z + z =	TZ	ez zion = etzion
... n + z =	TZ	sartzen zen = sartzentzen
... z + d =	ZT	ez da = ezta
... z + b =	ZP	ez bada = ezpada
... z + g =	ZK	ez genuen = ezkenuen
... ez + aditz formak, n/l/h hizkiekin hasten direnak	z ez da ahoskatzen	ez nuen = enuen ez lukete = elukete ez haiz = ehaiz
g + e <i>edo</i> i =	a, o, u bokalen aitzinean bezala ahoska	geografia...
h ahoska : hori, hau, herri...		
h ahoska kontsonante hauen ondotik ere : (Iparraldeko eskualde batzuetan erabilia)	p/t/k/n/l	epherra, othe, khe, xinhaurri, elhe ...
z/s/x ziztukariak dira	bereizi behar dira	z ati, solas, x ingola
r eta rr euskal maneran ahoska		ur aldi, ur re

3- “a” organikoa

A - “a” itsatsia duten zenbait izen

(iturria : Euskaltzaindia - <http://www.euskaltzaindia.net/hiztegibatua/>)

abantaila	bandera	erromeria	hareatza	koilara	muga	probintzia	uda
ahizpa	banilla	errota	hasiera	kola	mustatxa	profeta	uharroila
aintzira	bazka	eskailera	hezkuntza	kondaira		punta	ukabilka
aita	bela	eski	hizkera	konketa	nahaspila	puska	uraska
aitzakia	berna	eskola	hizkuntza	konpota	neska		urtxintxa
aizkora	beta	eskopeta	horma	kopeta	neskatila	sakela	
afixa	bezpera	esperantza		kontzientzia	neskatxa	salda	xerra
akabera	bilduma	etiketa	ideia	korda		salmenta	xendra
akademia	birjina	euskara	ikara	koroa	oilaloka	saltsa	xilintxa
alaba	bista	ezkila	ikasgela	krema	oilanda	sardexka	ximixta
alberjinia	bizitza	ezpata	ikaskuntza	kulunka	okela	sardina	xingola
aldapa	boa	eztabaida	ikastola	kutxa	ola	sega	xirrista
alegia	bola		ilara		ordena	segurantzaz	
alkandora	bolaluma	falta	iloba	labana	orkatila	sehaska	zaia
ama	borda	fama	irakaskuntza	landa	osaba	serora	zalopeta
amama	borroka	familia	itxura	lanpa	ostra	siropa	zapata
anaia	bota	farmazia	izara	laranja	ostruka	soka	zebra
animalia	buia	feria	izkira	leka		sorbalda	zerra
arantza	burdina	festa		lera	pareta	sorta	zerrenda
arbola		foka	jaiotza	logela	parrasta		zinema
ardura	dafaila		jaka	lotsa	pastiza	taberna	zirrimarra
arma	dardara	galerna	jangela	lotura	pena	tarta	zopa
armiarma	dema	galtza	jela	lukainka	penitentzia	taula	zuhaiخوا
arnasa	denbora	ganbara	jirafa		perla	teila	zuhurtzia
arrautza	denda	gasna	justizia	maila	pertsona	telebista	
arreba	desira	garizuma		makila	petenta	tipula	...
arroa	dineta	gatazka	kadira	makina	pertsonaia	tixerta	
arropa	distira	gauza	kaiola	malezia	pieza	traba	
arrosa	domeka	gaztaina	kandela	mandarina	pijama	tranbia	
aska	duda	gaztanbera	kanika	manka	pila	tresna	
atorra	dutxa	gazteria	kanta	marka	pilota	trikota	
ausardia		gela	kapa	marmoka	pipa	tripa	
axola	egia	geriza	karga	marra	pitika	tristezia	
aza	egongela	gerra	karrika	marruma	pixa	tristura	
azienda	eliza	giltza	karta	maska	piztia	trotineta	
azieta	entsalada	girlanda	kartzela	mertxika	pizza	trufa	
azoka	epizeria	goma	kasketa	mila	plaza	ttirritta	
aztarna	era	gona	katzeta	meta	politika	tulipa	

(Zerrenda osoa liburu hauetan behatu :

- *Hizkuntza zuzen erabiltzeko arau eta proposamen-bilduma* . HABE, 1993
- *Idazkera liburua*. Eusko Jaurkitza, 1993
- *Hizkuntza 8*. Elkar, 1987
- *Hiztegi batua*. Euskaltzaindia, hitzez hitz behatu)

B - “a” itsatsia duten zenbait atzizki

-**kada** : besarkada, ...

-**dura (-tura)** : abiadura, kutsadura, ohitura, ...

-(**k**)**era** : bukaera, ...

-(**k**)**eria** : alferkeria, maltzurkeria, ...

-(**t**)**eria** : tresneria, gazteria, ...

-(**k**)**eta** : ikasketa, heziketa, ...

-**ezia** : pobrezia, ahulezia, ...

-**gintza** : etxegintza, zurgintza, legegintza, ...

-**kuntza** : eraikuntza, irakaskuntza, ...

-**tza** : nekazaritza, erregetza, agintza, ...

4 – Zenbakiak, tenorea eta data

A – Zenbakien idazkera (Euskaltzaindiaren arauen arabera)

0	zero / huts	17	hamazazpi	300	hirurehun
1	bat	18	hemezortzi	400	laurehun
2	bi	19	hemeretzi	500	bostehun
3	hiru	20	hogei	600	seiehun
4	lau	21	hogeita bat	700	zazpiehun
5	bost	30	hogeita hamar	800	zortziehun
6	sei	31	hogeita hamaika	900	bederatziehun
7	zazpi	40	berrogei	1000	mila
8	zortzi	50	berrogeita hamar	1100	mila eta ehun
9	bederatzi	60	hirurogei	1200	mile eta berrehun
10	hamar	70	hirurogeita hamar	1301	mila hirurehun eta bat
11	hamaika	80	laurogei	1901	mila bederatziehun eta bat
12	hamabi	90	laurogeita hamar	8050	zortzi mila eta berrogeita hamar
13	hamahiru	100	ehun	100/000	ehun mila
14	hamalau	101	ehun eta bat	10/000/000	milioi bat
15	hamabost	200	berrehun	10/000/000	hamar milioi
16	hamasei	201	berrehun eta bat	100/000/000/000	mila milioi

B - Tenorea

Orduak bi osagai dauzka : **orena** eta **minutuak**.
Laurdenak eta erdiak ez dira minutuak, baizik eta orena.

Adib. : “**Oren batA** eta **hoge**i”. “**lauAK** eta **bost**”, “**bostAK** eta **laurdenAK**”,
“**HamarrAK** eta **erdiAK**”

Minutuak : > Orena jo eta zenbait minutu iraganak direlarik orduan « ETA » ezartzen da orena eta minutuaren artean

Adib. : **Zortziak ETA bost** / **Bederatzia** **ETA hogei**

> Orena jotzeko zenbait minutu falta direlarik orduan « GUTI » ezartzen da

Adib. : **Hamarrak hamar GUTI** / **Zazpiak laurden GUTI**

Salbuespena : **ordu batA** artikuluekin erabiltzen da beti, eta beti ere singularrean.

Oren kardinala	Orena ahoskatua & idatzia
1 : 00	Ordu bata / oren bata
2 : 00	Ordu biak / bi orenak
3 : 00	Hirurak / hiru orenak
4 : 00	Laurak / lau orenak
5 : 00	Bostak / bost orenak
6 : 00	Seiak / sei orenak
7 : 00	Zazpiak / zazpi orenak
8 : 00	Zortziak / zortzi orenak
9 : 00	Bederatzia / bederatzi orenak
10 : 00	Hamarrak / hamar orenak
11 : 00	Hamaikak / hamaika orenak
12 : 00	Hamabiak / hamabi orenak / gauerdia
1 : 05	Ordu bata eta bost / oren bata eta bost
2 : 10	Ordu biak eta bost / bi orenak eta bost
3 : 15	Hiru eta laurdenAK
4 : 20	Laurak eta hogeia
5 : 25	Bostak eta hogeita bost
6 : 30	Sei eta erdiAK
7 : 35	Zortziak hogeita bost guti
8 : 40	Bederatzia hogeia guti
9 : 45	Hamarrak laurden guti
10 : 50	Hamaikak hamar guti
10 : 55	Hamaikak bost guti

Orenak unitate banaezina da. Beraz, kasu marka bat hartuko du amaieran deklinatzen denean.

Tenorearen deklinabidea					
: 00	-ETAN	-ETATIK	-ETAKO	-ETARA	-ETARAKO
: 05	-EAN	-ETIK	-EKO	-ERA	-erako
: 10	-EAN	-ETIK	-EKO	-ERA	-erako
: 15	-ETAN	-ETATIK	-ETAKO	-ETARA	-ETARAKO
: 20	-AN	-TIK	-KO	-RA	-rako
: 25	-EAN	-ETIK	-EKO	-ERA	-erako
: 30	-ETAN	-ETATIK	-ETAKO	-ETARA	-ETARAKO
: 35	-TAN	-TATIK	-TAKO	-TARA	-TARAKO
: 40	-TAN	-TATIK	-TAKO	-TARA	-TARAKO
: 45	-TAN	-TATIK	-TAKO	-TARA	-TARAKO

Tenorearen deklinabidea					
: 50	-TAN	-TATIK	-TAKO	-TARA	-TARAKO
: 55	-TAN	-TATIK	-TAKO	-TARA	-TARAKO

Adib. : Zer tenoretan hasiko da prentsaurrekoa ? BiETAN hasiko da.
 BiETATIK goiti iraganen da prentsaurrekoa.
 Zazpiak eta bostEKO behar dut etxean !
 Bilkura, hiru eta erdiETATIK goiti iraganen da.
 Zortzi eta erdiETATIK hamar eta erdiETARA bulegoan izango naiz.

B - Data

Forma desberdinak erabiliak dira. Forma erabiliena aurkeztua da hemen.

B. 1/ Forma erabiliena

urtea -(e)KO hilabetea -AREN eguna – A

adib. : « 2006ko azaroaren 23a »

B. 2 / Oharrak

- Urtea eta eguna zifraz idazten dira.
- Urtea kontsonante batez amaitzen denean, orduan **-eko** ezarri behar da. (2001eko, 2005eko ...)
- Aldiz, urtea bokal batez bururatzen bada, orduan **-ko** ezarri behar da (2002ko, 2006ko ...)
- Hilabetea minuskulaz idazten da.
- Eguna deklinatzen da : **-a, -an, -ean, -tik, -etik, -ra, -era ...**

B. 3 / Era laburtua

Hona dataren forma laburtua nola idatzi behar den euskaraz :

- urtea/hilabetea/eguna *adib. :* 2006/11/23
- urtea-hilabetea-eguna *adib. :* 2006-11-23

5 – Laburdurak

Hitz arrunt edo izen berezien laburduren gibelean puntua (.) idazten da. Hala ere, nazioarteko unitateen laburduren gibelean ez da punturik jartzen.

A - Nazioarteko unitateak

m : metro	g : gramo	seg : segundo
km : kilometro	kg : kilogramo	min : minutu
m2 : metro karratu	l : litro	h/or : ordu
cm : zentimetro	cl : zentilitro	zm : zentimo
mm : milimetro	ml : mililitro	

B – Laburdura orokorrak, denbora, egunak

adib. : adibidez	p.m. : post meridiem	K.o. : kristo ondoren
e.b. : esate baterako	a.m. : ante meridiem	K.a. : kristo aurretik
etab. / e.a. : eta abar	al. : astelehena	
or. : orrialdea	as. : astearta	
orr. : orrialdeak	az. : asteazkena	
ik. : ikus	og. : osteguna	
lab. : laburdurak	or. : ostirala	
zk. / zenb. : zenbakia	lr. : larunbata	
jn. : jauna	ig. : igandea	
and. : anderea		

C – Gramatika laburdurak

ad. : aditza	izord. : izenordaina	sing. : singularra
adb. : adberbioa	partiz. : partizipioa	zenbtz. : zenbatzailea
adlag. : adizlaguna	pl. : plurala	
iz. : izena	postpos. : postposizioa	
izlag. : izenlaguna	pred. : predikatua	
izond. : izenondoa	sin. : sinonimoa	

6. ATALA :

GEHIGARRIAK

- ▮ Izenordainak deklinaturik
- ▮ Haren / Bere
- ▮ Erakusleak deklinaturik
- ▮ Hitz berezi batzuen sailkapena
- ▮ Hiru eta lau zenbakien deklinabideak
- ▮ Euskal deklinabideak
- ▮ Euskal aditz laguntzailearen taula osoa
- ▮ Aditz alokutiboa
- ▮ Testu antolatzaileak
- ▮ Munduko geografiako zenbait izen

Izenordainak deklinatuak

	NI	HI	ZU	GU	ZUEK
Absolutiboa	Ni	Hi	Zu	Gu	Zuek
Ergatiboa	Nik	Hik	Zuk	Guk	Zuek
Datiboa	-ri	-ri	-ri	-ri	Zueri
Edutezko gen.	-re	-re	-re	-re	Zuen
Destinatiboa	-retzat	-retzat	-retzat	-retzat	Zuentzat
	-retako	-retako	-retako	-retako	Zuentako
Soziatiboa	-rekin	-rekin	-rekin	-rekin	Zuekin
Motibatiboa	-regatik	-regatik	-regatik	-regatik	Zuengatik
Instrumentala	-taz	-taz	-taz	-taz	Zuetaz
Inesiboa	-(re)gan	-(re)gan	-(re)gan	-(re)gan	Zuengan
	-(re)baitan	-(re)baitan	-(re)baitan	-(re)baitan	Zuenbaitan
Ablatiboa	-(re)gandik	-(re)gandik	-(re)gandik	-(re)gandik	Zuengandik
	-ganik	-ganik	-ganik	-ganik	Zuenganik
Adlatiboa	-(re)gana	-(re)gana	-(re)gana	-(re)gana	Zuengana
Norabide zuzengabea (1)	-(re)ganantz	-(re)ganantz	-(re)ganantz	-(re)ganantz	Zuenganantz
Adl. Bukatuzkoa	-ganaino	-ganaino	-ganaino	-ganaino	Zuenganaino

(1) *-(re)ganantz* eta *-ri buruz*

Bere / haren, haren / bere ... nola erabili ?

Berek aipatzen duen pertsona edo dena dela aitzinetik agertzen bada perpausean nor, nori edo nork bezala, orduan **bere** da erabili behar den izenordaina. Bestenaz, **haren** da forma zuzena.” (EGLU)

*Adib. : “Maddalen **bere** etxera doa.”*

Baina beste norbaiten etxea baldin bada, Xantiren etxea adibidez, orduan :

*“Maddalen **haren** etxera doa.”*

“Trakasleak bere iritzia eman du.”

“Trakasleak haren (beste norbaiten) iritzia aipatu du.”

Erakusleak deklinatuak

	HAU / HORI / HURA	HAUEK / HORIEK / HAIEK
Absolutiboa	Hau, hori, hura	Hauek, horiek, haiek
Ergatiboa	Honek, horrek, hark	Hauek, horiek, haiek
Datiboa	Honi, horri, hari	Hauei, horiei, haiei
Edutezko gen.	Honen, horren, haren	Hauen, horien, haien
Destinatiboa	Honentzat, horrentzat, harentzat	Hauentzat, horientzat, haientzat
	Honendako, horrendako, harenako	Hauendako, horiendako, haiendako
Motibatiboa	Honengatik, horrengatik, harengatik	Hauengatik, horiengatik, haiengatik
Intsrumentala	Honez, horrez, harez	Hauez, horiez, haiez
	Honetaz, horretaz, hartaz	Hauetaz, horietaz, haietaz
Inesiboa	Honetan, horretan, hartan	Hauetan, horietan, haietan
	Honengan, horrengan, harengan	Hauengan, horiengan, haienga
	Honen baitan, horren baitan, haren baitan	Hauen baitan, horien baitan, haien baitan
Ablatiboa	Honetatik, horretatik, hartatik	Hauetatik, horietatik, haietatik
	Honetarik, horretarik, hartarik	Hauetarik, horietarik, haietarik
	Honengan(d)ik, horrengan(d)ik, harengan(d)ik	Hauengan(d)ik, horiengan(d)ik, haiengan(d)ik
Adlatiboa	Honetara, horretara, hartara	Hauetara, horietara, haietara
	Honengana(t), horrengana(t), harengana(t)	Hauengana(t), horiengana(t), haiengana(t)
Norabide zuz. (1)	Honetarantz, horretarantz, hartarantz	Hauetarantz, horietarantz, haietarantz
	Honenganantz, horrenganantz, harenganantz	Hauenganantz, horienganantz, haienganantz
Adlatibo buk.	Honetaraino, horretaraino, hartaraino	Hauetaraino, horietaraino, haietaraino
	Honenganaino, horrenganaino, harenganaino	Hauenganaino, horienganaino, haienganaino
Destinatiboa	Honetarako, horretarako, hartarako	Hauetarako, horietarako, haietarako
	Honenganako, horrenganako, harenganako	Hauenganako, horienganako, haienganako
Leku gen.	Honetako, horretako, hartako	Hauetako, horietako, haietako

(1) -(re)ganantz eta -ri buruz

Hitz berezi batzuen erabilera

Iturriak :

Sarasola, Ibon. *Euskal hiztegia*

Ikaslearen hiztegia. Elhuyar ; Elkarlanean

Ezezkoak	Ez baiezkoak	Ezezkoak
Norbait (izord.)	Inor / nehor (izord.)	Inola / inolaz / neholaz (adlag.)
Nonbait (adlag.)	Inon / nehon (adlag.)	
Noizbait (adlag.)	Inoiz / nehoiz (adlag.)	
	Inora / nehora(t) (adlag.)	

Hiru eta lauen deklinabide taula

Hiru		Lau	
Mugagabea	Plurala	Mugagabea	Plurala
Hiru	Hirurak	Lau	Laurak
Hiruk	Hirurek	Lauk	Laurek
Hiruri	Hirurei	Lauri	Laurei
Hirurik	-	Laurik	-
Hirutan	Hiruretan	Lautan	Lauretan
Hirutako	Hiruretako	Lautako	Lauretako
Hirutatik	Hiruretatik	Lautatik	Lauretatik
Hirutara	Hiruretara	Lautara	Lauretara
Hiruren	Hiruren	Lauren	Lauren
Hirurekin	Hirurekin	Laurekin	Laurekin
Hirurentzat	Hirurentzat	Laurentzat	Laurentzat
Hirurez	Hirurez	Laurez	Laurez

Euskal deklinabidea

edo	Ø	[nor, zer]	(absolutiboa)
	-IK		(partitiboa)
	-K	[nork, zerk]	(ergatiboa)
	-I	[nori, zeri]	(datiboa)
	-EN	[noren, zeren]	(edutezko genitiboa)
	-ENTZAT	[norentzat, zerentzat]	(destinatiboa)
	-ENDAKO	[norendako, zerendako]	“
	-EKin	[norekin, zerekin]	(soziatiboa)
	-(EN)GATIK	[norengatik, zerengatik]	(motibatiboa)
edo	-Z	[zerez, zertaz]	(instrumentala)
	-TAZ	[zertaz, nortaz]	“
	-TZAT	[zertzat, nortzat]	(prolatiboa)
Bizigabe	-N	[non, zertan, noiz]	(inesiboa)
	-(EN)GAN	[norengan]	“
	-(EN)BAITAN	[noren baitan]	“
Bizidun	-TIK	[nondik]	(ablatiboa)
	-(EN)GAN(D)IK	[norengan(d)ik]	“
	-RAT	[nora(t)]	(adlatiboa)
	-(EN)GANA(T)	[norengana(t)]	“
	-RANTZ	[norantz]	(norabide zuzenezkoa)
	-(EN)GANANTZ	[norenganantz]	“
	-RAINO	[noraino]	(adlatibo bukatuzkoa)
	-(EN)GANAINO	[norenganaino]	“
	-RAKO	[norako]	
	-(EN)GANAko	[norenganako]	
	-KO		(banatzailea)
	-KO	[nongo]	

Aditz alokutiboa

- Nor kasua orainaldian – batua eta Beskoitzeko euskalkia

ni	nauk/n
hura	duk/n
gu	gaituk/n
haiek	dituk/n

- Nor kasua iraganaldian – batua

ni	ninduan/nan
hura	zuan/nan
gu	gintuan/nan
haiek	zituan/nan

- Nor kasua iraganaldian – Beskoitzeko euskalkia

ni	nindukan/nan
hura	zukan/nan
gu	gintukan/nan
haiek	zitukan/nan

- Nor-Nori orainaldia - batua

	<i>niri</i>	<i>hari</i>	<i>guri</i>	<i>haiei</i>
ni		natzaiok/n		natzaiek/n
hura	zaidak/n	zaiok/n	zaiguk/n	zaiek/n
gu		gatzaizkiok/n		gatzaikiek/n
haiek	zaizkidak/n	zaizkiok/n	zaizkiguk/n	zaizkiek/n

● Nor-Nori orainaldia – Beskoitzeko euskalkia

	<i>niri</i>	<i>hari</i>	<i>guri</i>	<i>haiei</i>
ni		nakok/n		nakoie(k)/ne
hura	zautak/n	zakok/n	zaukuk/n	zakoie(k)/ne
gu		gitazkok/n		gitazkoie(k)/ne
haiek	zauztak/n	zazkok/n	zauzkuk/n	zazkoie(k)/ne

● Nor-Nori iraganaldia - batua

	<i>niri</i>	<i>hari</i>	<i>guri</i>	<i>haiei</i>
ni		nintzaioan/nan		nintzaiean/nan
hura	zitzaidaan/nan	zitzaioan/nan	zitzaiguan/nan	zitzaiean/nan
gu		gintzaizkioan/nan		gintzaikiean/nan
haiek	zitzaizkidaan/nan	zitzaizkioan/nan	zitzaizkiguan/nan	zitzaizkiean/nan

● Nor-Nori iraganaldia – Beskoitzeko euskalkia

	<i>niri</i>	<i>hari</i>	<i>guri</i>	<i>haiei</i>
ni		nintazkoian/nan		nintazkoteian/nan
hura	zautaian/nan	zankoian/nan	zaunkuian/nan	zankoteian/nan
gu		gintazkoian/nan		gintazkoteian/nan
haiek	zauztaiian/nan	zanzkoian/nan	zaunzkuian/nan	zanzkoteian/nan

● Nor-Nork orainaldia - batua

	<i>ni</i>	<i>hura</i>	<i>gu</i>	<i>haiek</i>
nik		diat/nat		ditiat/nat
harek	naik/n	dik/n	gaitik/n	ditik/n
guk		diagu/nagu		ditiagu/nagu
haiek	naitek/n	ditek/n	gaitiztek/n	ditiztek/n

● Nor-Nork orainaldia – Beskoitzeko euskalkia

	<i>ni</i>	<i>hura</i>	<i>gu</i>	<i>haiek</i>
nik		diat/nat		ditiat/nat
harek	nik/n	dik/n	gitik/n	ditik/n
guk		diagu/nagu		ditiagu/nagu
haiek	nie(k)/ne	ditek/n	gitie(k)/ne	ditie(k)/ne

● Nor-Nork iraganaldia - batua

	<i>ni</i>	<i>hura</i>	<i>gu</i>	<i>haiek</i>
nik		nian/nan		nitian/nan
harek	nindian/nan	zian/nan	gintian/nan	zitian/nan
guk		genian/nan		genitian/nan
haiek	ninditean/nan	zitean/nan	gintiztean/nan	zitiztean/nan

● Nor-Nork iraganaldia – Beskoitzeko euskalkia

	<i>ni</i>	<i>hura</i>	<i>gu</i>	<i>haiek</i>
nik		nian/nan		nintian/nan
harek	nintian/nan	zian/nan	gintian/nan	zitian/nan
guk		ginian/nan		gintian/nan
haiek	nintizteian/nan	ziteian/nan	gintizteian/nan	zizteian/nan

● Nor-Nori-Nork orainaldia - batua

	<i>niri</i>	<i>hari</i>	<i>guri</i>	<i>haiei</i>
nik		zioat/nat		zieat/nat
harek	zidak/n	ziok/n	ziguk/n	ziek/n
guk		zioagu/nagu		zieagu/nagu
haiek	zidatek/n	ziotek/n	zigutek/n	zietek/n

● Nor-Nori-Nork orainaldia - Beskoitzeko euskalkia

	<i>niri</i>	<i>hari</i>	<i>guri</i>	<i>haiei</i>
nik		dakoiat/nat		dakoteiat/nat
harek	dautak/n	dakok/n	daukuk/n	dakoteiek/ne
guk		dakoiagu/nagu		dakoteiagu/nagu
haiek	dautaie(k)/ne	dakoie(k)/ne	daukuie(k)/ne	dakoteie(k)/ne

Nor plurala denean, -zki- gehitu: zizkioat/nat.

Adib. : "Zapata berriak erosi dazkoiat/nat."

● Nor-Nori-Nork iraganaldia - batua

	<i>niri</i>	<i>hari</i>	<i>guri</i>	<i>haiei</i>
nik		nioan/nan		nieran/nan
harek	zidaan/nan	zioan/nan	ziguian/nan	zieran/nan
guk		genioan/nan		genieran/nan
haiek	zidatean/nan	ziotean/nan	zigutean/nan	zietean/nan

● Nor-Nori-Nork iraganaldia – Beskoitzeko euskalkia

	<i>niri</i>	<i>hari</i>	<i>guri</i>	<i>haiei</i>
nik		nakoian/nan		nakoteian/nan
harek	zautaian/nan	zakoian/nan	zaukuian/nan	zakoteian/nan
guk		ginakoian/nan		ginakoteian/nan
haiek	zautateian/nan	zakoteian/nan	zaukuteian/nan	zakoteteian/nan

Nor plurala denean, -zki- gehitu: nizkioan/nan

Adib. : "Liburuak itzuli nazkoian/nan."

Testu antolatzaileak

Hasiera :

Hasteko,
Lehen-lehenik,
Sarrera gisa errango dugu,
Honen bidez,
Honen helburu,
Bazen behin, ...

Ordena :

Alde batetik, ... bestetik,
Ildo beretik,
Lehenik, bigarrenik,
Baita ere,
Honako hau,
Honekin batera,
Besteak beste,
Era berean,
Halaber,
Erran bezala,
Ez hori bakarrik,
Gorago erran bezala,
Are gehiago,
Beste batzuetan,
Honen ondoren,
Berriz ere, ...

Hierarkizazioa :

Beriziki, batez ere,
Guzien gainetik,
Baino gehiago,
Ez bezala,
Ezer baino lehen, ...

Idea baten aurkezteko :

-ri dagokionez,
... dela eta, egoki da erraitea,
Oro har, ...

Idea berriak :

Gainera,
Gehiago dena,
Egia erran,
Modu berean,
Are gehiago,
Bestetik, eta,
Ez hori bakarrik,
Bestalde,
Baita ere, ere bai, ...

Jarraipena :

Ondorioz,
Honen ondotik,,
Hari beretik,
Gisa berean, bigarrenik,
Gero,
Baita ... ere,
Hau ikusi eta gero,
Gainera, honez gain ...

Kontrastea / kontrakotasuna :

Dena dela, dena den,
Horren aurka,
Esanak esan,
Nolanahi ere,
Edozein modutan ere,
Edonola ere,
Hori horrela izanik ere,
Baina, bestetik,
Kontuan izan,
Nolanahi ere,
Hala ere,
Ordea, berriz, aldiz ..

Beharrizana :

Derrigorrez,
Nahitaez,
Beharrezkoa da, ...

Arrazoina :

Bait-,
-elako,
-(e)la eta,
-t(z)eagatik,
Zeren eta,
Horregatik,
Izan ere,
Hori dela eta,
Horrela,
Beraz,
Hortaz,
Behin eta berriro ...

Denbora :

Lehen,
Gaur egun,
Orduan,
Gero,
Egun batez,
(XXI). mendean
Orain,
Hastapenean, hatsarrean,
Hasieran,
Azkenik,
Halako batean,
Berantago,
Laster,
Lehenago
Orain arte,
Behin batean, ...

Adibidea :

Adibidez,
Hori argitzeko,
Eman dezagun,
Besteak beste,
Hau da,
Pentsa dezagun, ...

Ziurtasuna / onarpena :

Ez da dudarik,
Onartu behar da,
Segurki, seguraski,
Seguruenik,
Nolaz ez !,
Noski,
Egia da, egiazki,
Dударik gabe,
Batere dudarik gabe,
Ezin uka,
Nahitez,
Ez da zalantzarik,
Argi da, argi eta garbi,
Garbiki, egiazki,
Alainan, alabainan,
Denek dakigu,
Jakina (denez)
Bistan da, ...

Bururatzea :

Bururatzeko,
Bukatzeko, amaitzeko,
Laburbilduz,
Ondorio gisa,
Burura dezagun erranez,
Azkenek, azkenik,
Zera,
Eta besterik gabe,
Hitz gutitan,
Bukaeran ...

Ondorioa :

Laburki,
Bada,
Hau guzia dela eta,
Funtsean,
Argi da,
Honen ondorioz,
Erranak erran,
Kontuan izanik,
Hain zuzen ere,
Hori dela eta ...

Indartzea :

Aipatu bezala,
Aipatu dugunez,
Batez ere,
Hain xuxen, hain zuzen ere,
Lehengo hariari jarraituz,
Hau azpimarratzeko,
Izan ere,
Kontuan hartu,
Are gehiago,
Gainera, ...

Lekutasuna :

Hemen,
Hor,
-en ondoan,
Gainean,
Urrunago,
Ezkerrean, Eskuinean,
Aitzinean,
Gibelean,
-tik hurbil ...

Parekidetasuna :

Era berean,
Alde batetik,
Bestetik,
Bezala,
Moduan, ...

Balorazioa :

Zorionez,
Zoritxarrez, zorigaitzez
Eskerrak,
Espero izan ...

Probabilitatea / iritzia :

Iduriz,
Dirudienek, badirudi,
Itxura guzien arabera,
Irakurri dugunez,
Omen,
Hain segur, naski,
-ren arabera,
Itxura denez,
Ote,
Erran daiteke,
Beharbada,
Agian,
Diotenez,
Batzuen iritziz,
-ren ustez,
-ren erranetan,
Uste izan,
Seguru asko,
Izango zen,
Hala beharrez, ...

(iturriak :

<http://euskaljakintza.blogsome.com>,

eta

Eibarko hizkuntz ofiziala –
euskara 2006/2007 - PDF)

Munduko geografiako zenbait izen (mendiak, ibaiak, itsasoak)

Nazio bat baino gehiago hartzen dutenak :

Mendiak:

Alpeak (Alpe mendiak)
Dinariar Alpeak
Dolomitak (Dolomita Alpeak)
Glarisko Alpeak
Hegoaldeko Karpatoak edo Transilvaniako Alpeak
Karpatoak (Karpato mendiak)
Erdialdeko Mendigunea (Massif Central)
Metal mendiak
Pirinioak (Pirinio mendiak)
Rhetiako Alpeak
Transilvaniako Alpeak edo Hegoaldeko Karpatoak.

Ibaiak:

Amazonas
Danubio
Ebro
Ibai Beltza
Ibai Gorria
Ibai Horia
Ibai Urdina edo Yangzi
Miño
Mosa
Mosela
Rhin
Rodano
Tajo.

(Hauetan guztietan "ibai" hitza jar daiteke giblean: "Amazonas ibaia", "Ebro ibaia", etab.)

Itsasoak:

Adriatikoa (Itsaso Adriatikoa)

Arabiako Itsasoa edo Omango Itsasoa

Ozeano Atlantikoa

Ozeano Australa

Baltikoa (Itsaso Baltikoa)

Ozeano Barea (Ozeano Pazifikoa)

Bizkaiko Golkoa

Indiako Ozeanoa

Ipar Itsasoa

Itsaso Beltza

Itsaso Gorria

Itsaso Hila

Itsaso Horia

Itsaso Zuria

Itsaso Jonikoa

Kaspiar Itsasoa

Liongo Golkoa

Mediterranea (Mediterraneo itsasoa).

7. ATALA :
BIBLIOGRAFIA

- *Euskal gramatika lehen urratsak I.* Euskaltzaindia, 1985
- *Euskal gramatika lehen urratsak II.* Euskaltzaindia, 1987
- *Euskal gramatika lehen urratsak III.* Euskaltzaindia, 1990
- *Euskal gramatika laburra : perpaus bakuna.* Euskaltzaindia, 1993
- *Euskal aditz batua.* Euskaltzaindia, 1979
- “Txillardegia”. *Euskal gramatika.* Ediciones Vascas, 1978
- Butron, Joseba ; De Pedro, Jokin. *Euskal gramatika praktikoa.* Erein, 1992
- Goenaga, Patxi. *Gramatika bideetan.* 2. arg. Erein, 1990
- Salaburu, Pello. *Ikaslearen esku-gramatika.* Mensajero, 1981
- Alberdi, Andres. *Eskola gramatika.* Elkar, 1996
- Lafitte, Piarres. *Grammaire basque.* 3. arg. Elkar, 1991
- *Grammaire basque pour tous.* Haize Garbia
- *Irakurgaiak 2. zikloa.* Ikas, 2004
- *Irakurgaiak 3. zikloa.* Ikas, 2005
- *Morfosintaxia* (EIMArene estilo liburua)
- *Ortotipografia.* 2004 (Estilo liburuaren lehen atala)
- *Onomastika* (Estilo liburuaren 3. atala)
- Duhau, Henri. *Hasian hasi : Beskoitzeko euskara.* Henri Duhau, 1993
- <http://www.euskaltzaindia.net/arauak> (Euskaltzaindiaren gunea)